ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

56. zenbakia 2007ko apirila



Mari Carmen Gallastegi, ekonomialaria:

“Gaur egun, ezberdintasunak konpontzea da ekonomiaren erronkarik handiena”

Greziera da *ekonomia* hitzaren jatorria: *oikos* (etxea, ondasunak) eta *nomos* (erregela, legea). Ondasunen ekoizpena, banaketa eta kontsumoa aztergai dituen zientzia. Mari Carmen Gallastegi ekonomialariaren aburuz, zentzu kontua da ekonomia: eskuera dauzkagun baliabide mugatuak modu burutsuan erabiltzea. Elkarrizketan aletzen diren ñabardurak ñabardura, azalpen sotila da, goi mailako ikerkuntza sariak jaso dituen zientzialariaren ahotik datorkiguna.

10. or.

Erreportajea:
Toki telebista digitalak aro berria du EAEn

Toki telebista digitalaren gaineko dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak iragan udazkenean. Hura onartu eta hilabetera, lizentziak emateko araubidea zehaztu eta lehiaketa publikoa abiarazi zuen. Jaurlaritzak jakinarazi zuenez, esleipen prozeduran lehentasuna izango dute udalek, bai eta euskararen erabilerak ere. Dekretuak eragile berriak erakarri eta sektorea mugiarazi du.

13. or.

Eztabaida:
Zer egin klima aldaketari aurre egiteko?



Azken urteotan eztabaida ugari izan dira klima aldaketaren inguruan: batzuek behin eta berriz adierazi digute ekologistek asmatutako teoria alarmista besterik ez dela; besteek, ostera, urte gutxi barru gure bizimodua aldatuko duen egiazko mehatxua dela. Azken ikerketek erakusten dutenez, klima aldaketa, benetakoa izateaz gain, pentsatu baino lehen helduko zaigu. Hortaz, eztabaidaren gakoa berori saihesteko bide egokiak bilatzean datza. Nahikoa izango al da iraunkortasunaren aldeko neurriak hartzea eta kontsumo arduratsua bultzatzea? Edo gure gizarte eredua bera aldatu beharko dugu? Bost aditurekin hitz egin dugu, euren iritziak zeintzuk diren jakiteko.

20. or.

16
***Hiztegi Batua* eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa**
Andres Urrutia
Esther Urrutia

22
Web 2.0, Sareko zerbitzuen iraultza
Gorka Jakobe Palazio

25
Pio Baroja idazlea eta Santa Kruz apaiza
Joxemari Iturralde

Erakunde Autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Txosten eta Emendakiña

euskal Heroiak



Zaldieroa

PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Begoña Aierdi, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Aintzane Arrieta, Jokin Azkue, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Joxemari Iturralde, Karmele Jaio, Joseba Lozano, Luma, Begoña Minaur, Gorka Jakobe Palazio, Nerea Pikabea, Joseba Terreros, Andrés Urrutia, Esther Urrutia, Rosa Mari Urrutia, Xabier Yurramendi, Juan Luis Zabala, Zaldieroa.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Roge Blasco, kazetaria:

"Bidaia imajinatzea gustatzen zait, horixe behar dut bizitzeko"



Argazkia: EITBko Prentsa Bulegoa

Kazetaritzarako zaletasuna txikitatik zetorkion. Begien bistakoa zen ekimeneko gizona izango zela. Artean bederatzi urte zituela, ingurunean entzuten zuen guztia islatzen zuen komikietan, gero lehengusuei saltzeko. Hogeita hiru urte bete ditu Radio Euskadiko *Levando anclas* saio ospetsuan eta, gaur egun, antzeko zer edo zer egiten jarraitzen du: besteek urruneko lur zabaletan ikusi dutena entzuleei uhinen bidez helarazten. Berrogeita hamabi urteko bilbotar honek berez daukan gozotasunak bete-betean murgilarazi gaitu bere bizitzaren bidaian.

Betidanik izan duzu kazetaritzarako zaletasuna?

Bai. Bederatzi edo hamar urte nituela, komikiak egin eta lehengusuei saltzen nizkien. Gizarte gaiei buruzko artikuluak, auzoan entzuten nituen kontuei buruzkoak, elkarrizketak… idazten nituen. Norberak mundu honetan aritzeko bokazioa behar du, bestela ez du aurrera egiten.

Gogoan dituzu hasierako garaiak?

Muskaria aldizkaria neronek sortu eta zuzendu nuen eta bertan aritu nintzen; euskal rockari eskainitako aldizkaria zen. Garai hartan ez zegoen ezer gai horri buruz, ezta horren inguruko euskarazko artikulurik ere. Portugaleteko JMC irrati independentean ere jardun nuen 1981ean, bai eta Radio Popularen ere 1983an. Halako batean, musikari buruzko irratsaio bat egiteko deitu zidaten Radio Euskaditik. Horrelaxe hasi nintzen *Levando anclas* programa egiten, geroago bidaiei buruzko irratsaio bilakatuko zena.

Nola murgiltzen duzu entzulea bidaia horietan uhinen bidez?

Oinarria naturaltasuna da eta, noski, kontatzaileak gogoz ekin behar dio. Horregatik, gonbidatuak girotzen saiatzen naiz, lagunartean kontu kontari ibiliko balira bezala; kontatzen dutena haiekin batera bizitzen dut, harridura erakusten diet.

Telebistan eta prentsan ere aritu zara. Zer komunikabidetan sentitzen zara erosoen?

Doctor Livingstone, supongo saioa aurkeztu nuen ETB2n zazpi urtez. Horren ondoren, RTVEko 2. katean ere aritu nintzen lanean, *Tierra a la vista* izeneko saioan. Niretzat erosoena irratia da, hurbilagoa da, kazetari eta entzuleek ahalegin handiagoak egin behar dituzte, ez da pasiboa; irudimen handia behar da. Telebistak, aldiz, hartzaileari ez dio ezer eskatzen, baina lana askoz ere sortzaileagoa da; aurretik lan handia dago. Prentsan argitaratzen dena askoz ere gehiago zabaltzen da; idazten duzuna hortxe gelditzen da. Irratian, ordea, esaten duzuna berehala galtzen da. Azkenik, telebistak inpaktu handia du.

Abenturazaleak al gara euskaldunak?

Gizakiok, oro har, nomada izateko jatorrizko sen hori dugu, lur hobe baten bila joateko gogo hori, alegia. Euskal Herrian itsasoarekin izan ditugun harreman horiek beste itsaso batzuetan gertatutakoa ezagutzera eraman gaituzte. Mendiarekin ere antzeko zerbait gertatzen da: norberak, mendi baten gailurrera heltzen denean, jakin nahi du garaiagoa den beste mendiaren atzean zer dagoen.

Gizarte gaiak ere lantzen dituzu beste irratsaio batean…

Irailean hamar urte egingo ditu *La casa de la palabra* saioak. Gizarte gaietan jendeak egiten dituen lanak erakustea da helburua. Gai asko lantzen ditugu: ekologia, mendi ibiliak, natura, bizimodu osasuntsua, nekazaritza ekologikoa, animalien eskubideen aldeko lanean diharduen jendea, elkartasuna…

Nola irudikatzen duzu geroa?

Orainaldia bizi dut eta, egia esan, ez dakit non amaituko dudan. Bidaiak egin eta erreportajeak idatzi nahi nituzke, baina hori oso zaila da, une honetan lanak tarterik ematen ez dit eta. Entzuleak nirekin aspertu direla ohartzen naizenean, orduantxe aldatuko dut.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Alkatea



Alkatea, gaur egun “udal bateko burua, udal-batzarraren lehendakaria”. Arabieratik omen datorkigu hitza: “al cadi” = “epailea”, “gobernaria”. Eta sasoi bateko ia alkate guztiak epaile omen ziren euskal zuzenbidean. Zuzenbide publiko zaharrean ez zeudenez zehatz bereizita Estatuaren hiru aginpideak, alkateak bere herrian hiru eginkizun-mota hauek betetzen zituen gutxienez: aginduak eman eta arauak jartzen zituen, manamenduak betearazten eta epaile-lanak egiten.

Euskalkien arabera beste hitz batzuk ere erabili izan dira edo erabiltzen dira “alkate” adierazteko: bizkaiera zaharrean, “endore”; Iparraldean “auzapez”, “baldernapez”, “mera”… Hainbat herritako auzoetan alkate-jarduna betetzen duenari “auzo-alkatea” esaten zaio.

Agintaria, herriaren zerbitzaria ere bai maiz, auzoekiko harreman zuzeneko pertsonaia da alkatea, handi-handiak ez diren herrietan behintzat, eta herritarrek, eguneroko harreman horretatik, alkateari buruz hainbat iritzi moldatu dituzte, ez guztiak berdinak. Hona batzuk:

Alkatea agintaritzat dute, zenbaitetan agintari gogortzat, honelakoak aitortzen dituztenek: “Ibini bidi alkate xauna, ibini bidi legea”, “Leaburuko barrutian alkateak (eskuan zigorra daramanean), apaizak eta txorimaloak izan ezik, beste iñortxok eztu kapelarik behar”. Errespetua! “Egiten du batek lapurreta andi bat, arrapatzen du alkateak, darama kartzelara”, “Mihi gaixtoari Alkatea urkari. Zeren gaxtoak urka eraziten baititu”. Gogorra!

Alkateak etxerako egiten duela pentsatzen dutenak ere badira: “…notaria irabazten da, alkatea diruz itsutzen da”, “Dénak Aita Alkaté, pleiturá segur doáké”. Baita alkate izateko dirua behar dela, bestela jai dagoela diotenak ere: “Hogoi urthe hartan bederen, herriko gizon izana gatik, behin ere ez zen mera edo alkate izendatua izan Migel Pocodinero”. Baina kargudun denean jasoko duela losintxarik: “Ayuntamentu guztietan gaur dago sekretarioa, alkate iaunen andikeria puztuten daben auspoa”.

Ohitura onen aldekotzat dute beste batzuek: “Zer kontu egingo luke onelako alkate batek taberna goiz itxi-erazteko, ta ordu onean bakoitza bere etxera bialtzeko?”, “Alkateak agindu zuan errian, mozkortzen errazak ziranak ardo gutxi eta ur asko edateko”. Horrelakoen kontrarioa hau: “Orain ditxa bat ona bada kupeletan: alkate beharrik ez gaubaz errondetan”.

Bizitzan denetik gertatzen denez, arriskua ere han batzuetan alkateak ere: “Ordun arrapatzen du Santa Cruzek apaiza, ta San Lorenzo-gañera eramanda lau tiro emanerazi zizkion”. Latza!

Kaxildo Alkorta
Laguna

JOXERRA INTERÍNEZ
BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA
interinez@mindless.com



Hizkuntza eskakizunen betetze maila derrigorrezkotasun data duten lanpostuetan

Orain arteko normalizazio prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ahaleginak izan ditu ardatz; horiek horrela izanik, lehen plangintzaldian (1989-1995), baita bigarrenean ere (1998-2002), Administrazioko langileak euskalduntzeari eta alfabetatzeari eman zitzaion lehentasuna: hizkuntza eskakizunak esleitzen, derrigorrezkotasun datak ezartzen eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzen ibili gara buru-belarri azken urteotan. Ahalegin horri esker, inoiz baino prestatuago daude Jaurlaritzako langileak, euskaraz lan egiteko. Hona hemen, horren guztiaren erakusgarri, 2007ko otsailean jasotako datuak:

Ikusten duzuenez, hizkuntza eskakizunen betetze mailari buruzko datuak onak dira: ia langileen erdiek (%46,5) dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatzen dute; baina kopuru horri gehitu behar zaizkio titularrik gabeko lanpostuetan aritzen diren langileak (%34,4), horietako gehienek egiaztatzen baitute hizkuntza eskakizuna. Gainera, kontuan hartzen badugu, %5,1ak dagokiona baino hizkuntza eskakizun txikiagoren bat egiaztatzen duela, bakar-bakarrik gelditzen zaigu %5,4 derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe (%8,6 alde batera utzita, langile horiek, adina dela eta, salbuetsita daudelako).

Garbi dago, hortaz, Administrazioan badugula euskaraz lan egiteko gaitasuna; beste gauza bat da euskaraz lan egiten dugun ala ez. Horixe, bada, gure erronka hirugarren plangintzaldi honetan (2003-2007). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan argi daukagu hizkuntza eskakizunak ez direla helburua, ez direla gure helmuga, euskararen normalizazioa lortzeko baliabideetariko bat baizik. Administrazioa benetan elebiduna izango bada, ezinbestekoa dugu euskararen erabileran aurrerapausoak ematea, eta horretara dator Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztietan erabilera planak martxan jartzeko proiektu berria.

Erabilera planak abian

Proiektuak, gutxi gorabehera, Eusko Jaurlaritzako 1.000 bat langileri eragingo die. Orain arte, euskararen egoera zein den aztertu dugu sail gehienetan (diagnosi kuantitatiboa eta kualitatiboa), eta kasuan kasuko egoeran oinarriturik, erabilera planaren xede orokorra finkatu dugu: alegia, lehentasunezko ataletan euskararen erabilera gehitu, euskara herritarrekiko harremanetan zerbitzu hizkuntza, beste administrazio batzuekiko harreman hizkuntza, eta Jaurlaritza barruko lan hizkuntza izan dadin.


Xede hori lortze aldera, lau helburu nagusi zehaztu ditugu: langileen hizkuntza gaitasunean, euskararen idatzizko erabileran, ahozko erabileran eta erakundearen irudi korporatiboan euskararen presentzia areagotzea. Helburu nagusi horien barruan helburu zehatzagoak markatu dira, baita adierazleak ere, helburu horien betetze maila neurtzeko. Helburuei begira, estrategia batzuk adostu ditugu, eta estrategia horietako bakoitza gauzatzeko, ekintza ugari: hizkuntza ofizialen erabilera finkatu eta langileen artean zabaldu, euskara erabiltzearen aldeko kanpaina eta konpromisoak, ikastaroak (orokorrak, berezituak, on line), norbanako trebakuntza saioak, hizkuntza aholkularitza, dokumentuak euskaratu eta txantiloiak osatu, zalantzak argitzeko gunea, zerrenda terminologikoak...

Uda baino lehen, martxan izango ditugu zenbait sailetako erabilera planak, eta urtearen amaierarako, Jaurlaritza osoan hedatuko dira.

EUSKO JAURLARITZA

LANPOSTU KOPURUA	DERRIGORREZKOAK	BEREA EGIAZTATU DUTE	EZ DUTE EZER EGIAZTATU	1 GUTXIAGO	2 GUTXIAGO	3 GUTXIAGO	ADINAGATIK SALBUETSITA	LANPOSTU HUTSAK (titularrik gabe)
6.580	2.525	1.174	136	108	20	2	216	869

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN BETETZE MAILA DERRIGORREZKOTASUN DATA DUTEN LANPOSTUETAN



Jokin Azkue
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria (HPS)

Joseba Lozano
Herri Administrazioetako Normalkuntza Plangintzak jarraitzeko arduraduna (HPS)

Justizia-epaitegietako hainbat testu euskaratzen

Ez dago esan beharrik justizia-arloko literatura ugaria eta era askotakoa dela: legeak, kodeak, epaitegietako autoetako testuak, izapideetakoak, epaiketa eta epaietakoak… Testuak eta testuak, batzuk honelakoak, beste batzuk halakoak, normalean gai eta arazo serioen lekuko eta euskarri –auziak gai serioak baitira–, nahiz eta gertaera barregarririk ere jasotzen duten, halabeharrez, behar baino gehiagotan.

Justizia-epaitegietako hainbat testu –inprimaki pila– euskaratzen ari da aspaldian lan-talde saiatu bat, Justizia Sailaren ardurapean. Ereduak dira guztiak, epaitegi barruan eta epaitegien artean erabiltzen direnak batzuk, eta epaitegietatik herritarrei edo herritarrek epaitegietara bidaltzekoak besteak. Eredu horiek guztiak gaztelaniaz sortuak dira, ez euskaraz. Eta aspaldi sortuak asko. Esan nahi dudana da gaztelaniaz idazteko aspaldiko moduan idatzita daudela eta, horrez gain, denbora pasa ahala eta erabili ahala gastatuta geratu diren testuak ez direla gutxi: testu gastatuak = ulertzen bihurriak = komunikaziorako baliogabeak = baztertzekoak. Horregatik, zaharkitutako eredu ulergaitzak eguneratzeko lana egin dute azken urteotan eta, egun, gaztelaniazko eredu franko dira egokituak; horrelakoak itzultzen ari da lehen aipatutako lan-taldea.

Esanaren ildotik, eta adibide modura, bi testu-itzulpen ikusiko ditugu: epaitegi barrukoak (exhortoa) eta epaitegitik herritar bati bidaliak (zitazioa):

Epaitegi barrukoak:

Modelo 41:	**41. eredua:**
EXHORTO CITACIÓN JUICIO VERBAL (1)	**HITZEZKO JUDIZIORAKO ZITAZIOA EGITEKO EXHORTOA (1)**
JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA DE (Nombre de la población) A (Nombre del destinatario del exhorto)	(Herriaren izena)-(e)ko LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIAK (Exhortoa jaso behar duenaren izena)
En este Juzgado se tramitan autos de referencia **(2)**, en los que, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 274 y 279 de la Ley Orgánica del Poder Judicial **(3)**, se remite **(4)** el presente exhorto, a fin de que sirva disponer **(5)** el cumplimiento de las diligencias que a continuación se expresan y su devolución por el mismo conducto de recibo **(6)**, obligándome a la recíproca cuando de los suyos viere **(7)**.	Epaitegi honetan izapidetzen ari diren erreferentziako autoetan **(2)**, Botere Judizialeko Lege Organikoko 274 eta 279. artikuluei jarraiki **(3)**, exhorto hau bidaltzen zaizu **(4)**, ondoren aipatzen diren eginbideak betearaz ditzazun, eta exhortoa jasotako bide beretik itzul dadin **(6)** eskatzen zaizu **(5)**. Gauza bera egingo dut nik ere antzeko kasuetan **(7)**.
En (Nombre de la población) a (Fecha literal)	(Herriaren izena)-(e)n, (Data letraz idatzita)-(e)an

Epaitegi bateko idazkariak beste epaitegi batera bidaltzeko inprimaki-eredua da. Hartzailea horrelako paper asko ditu irakurriak, ez da herritar gehienak bezalakoa horretan, horko hiztegia ezagutzen du, lan horretan jarduteko modua ere bai… Beste kontua da herritarrei bideratutako testuena. Hori horrela, ohar hauek:

(1) Idazpurua: euskarazkoa edozeinek ulertzen du; gaztelaniazkoa laburpena da, horretan dabilenarentzat nahikoa da.

(2) Gaiaren aipamena: "autos de referencia" baino argiago ez ote "autos arriba/antes indicados/señalados"?; lan horretan ez dabilenarentzat bai. Eta "indicados/señalados" idatzi balute, "erreferentziako autoetan"-en ordez, agian "aipatutako/adierazitako autoetan" izango genuen euskaraz. Hori ere hala da.

(3) Aipamena. Formula.

(4) Gaztelaniaz 3. pertsonan; euskaraz 2.ean, "zuri", tratamendu zuzenagoa, hurbilagokoa.

(5) "… a fin de que sirva disponer el cumplimiento/la devolución", euskaraz lauago: "….eskatzen zaizu".

(6) "… *su* devolución por el mismo conducto de recibo" = "…*exhortoa* jasotako bide beretik itzul dadin": gaztelaniazko *su* izenordearen ordez, euskaraz *exhorto***,** izena errepikatuta. Kasu honetan *su* izenordea ez da nahasmenbide, baina bai makina bat aldiz.

(7) Gaztelaniazko esaldia dotorea dela ezin ukatu. Dena dela, argiagoa da euskarazkoa euskaldunentzat, gaztelaniazko hori gaztelaniadun gehienentzat baino. Eta hitzez hitz euskaratu balitz, xelebrea.

6 eta 7-koek erakusten digute ibilian-ibilian esamolde bereziak sortu direla, jendearen hizkuntza-modutik aparte samarrekoak. Ibilian-ibilian; izan ere, testu hauek bizitza luzea dute. Euskarazko testuak sortu berriak dira: bilakaera horretarako aukerarik izango ote dute? Ez daitezela hil behintzat jaio berritan.

Modelo 15:

CÉDULA DE CITACIÓN

SE CITA A: (Nombre, domicilio y pobl. Int. (S0032)

En virtud de lo acordado en autos de referencia **(1)**, por medio de la presente se cita a quien abajo se indica **(2)**, a fin de que el día (Fecha de la citación), a las (Hora de la citación) horas, comparezca **(2)** ante este Juzgado con el fin de (Finalidad), bajo apercibimiento de que si no lo verifica **(3)** (Apercibimiento).

Y para que sirva de cédula de citación en forma **(4)** a quien abajo se indica, extiendo **(5)** y firmo la presente en (Nombre de la población), a (Fecha literal).

EL/LA SECRETARIO/A

15. eredua:

ZITAZIO-ZEDULA

ZITATUA: Izena: (Parte hartzailearen izen-abizenak), Helbidea: (Parte hartzailearen helbidea eta herria) (S0032)

Erreferentziako autoetan **(1)** erabakitakoaren indarrez, idazki honen bidez zitazioa egiten zaizu **(2)** (Eguna)-(e)an, (Ordua)-(r)etan epaitegi honetan ager zaitezen **(2)**, (Zertarakoa). Ez aurkezteak **(3)** dakartzan ondorioez ohartarazten zaizu: (Ondorioak).

Eta zitazioa behar bezalako forman egiteko **(4)**, zedula hau idatzi **(5)** eta izenpetzen dut (Herriaren izena)-(e)n, (Data letraz idatzita)-(e)an

IDAZKARIA

Herritarrek ez dute zertan jakin epaitegi barrukoek beren eginkizunerako jakin behar duten guztia; horregatik, bidaltzen zaizkien mezuek erraz ulertzeko modukoak izan beharko dute. Horrek ez du esan nahi ikasi behar ez dutenik, ikasi egin behar dituzte-eta epaitegietan jarduteko modu batzuk, hitz berezi batzuk; gizartean bizitzeko legea da hori. Epaitegietan ibili beharrean gertatzen badira, ikasiko dutela ere egia da. Hori azalduta, ohar hauek:

(1) Ikusi goiko oharretako 2).
(2) Ikusi goiko 4).
(3) "… si no lo verifica" aukeratu dute "… si no comparece" esateko. Euskarazkoan "Ez aurkezteak". Normalagoa, nire ustez, "aurkeztu ezean, aurkezten ez bazara…".
(4) Formula kontua.
(5) "extiendo" herritarrek ikasi beharrekoetakoa, erabilerak agintzen du eta. Euskaraz, "idatzi". Gaztelaniaz onartuko ote lukete "la escribo" kasu honetan? Hizkuntzak saltoak ditu; hau da bat.

Topikoak topiko, administrazioko eta justiziako hizkera ulertezina edo, onenean ere, ulergaitza?

Zalantzarik gabe administrazioko eta justiziako euskarazko testuak ulergaitzak dira maiz euskaldunontzat eta ulertezinak ere bai batzuetan; gaztelaniazko testuak gaztelaniadunentzat bezain ulergaitzak eta ulertezinak behintzat, baietz esango nuke. Zer dela eta?

Noiz da testua ulerterraza? Testua behar bezala egituratuta badago, sintaxi egokikoa bada, esamolde eta hitz jakinak baditu, irakurleak ulertuko du. Eta, horrez gain, irakurleak gaia ezagutzen badu, askoz ere errazago ulertuko du testu on hori.

Noiz da ulergaitza testua? Gaizki egituratuta dagoenean, baita sintaxi okerrekoa denean ere, esamolde edo hitzak ezezagunak direnean ere bai; eta hiru oker horiek elkar hartuta badabiltza, jai du irakurleak, gaia ezagutu arren ere… Ezagutzen ez badu, berriz jai eta "errepetizioa".

Aztergai ditugun justiziako inprimakietako testuen egitura-sintaxiak egokiak dira gehienetan. Hala ere, jendeak erabili behar dituen testuak zailak direla esango dute askok. Zergatik?

Batetik, argi dago justizia-arloa zabala dela, ia behin ere ez gustukoa, eta jendeak ez diola kasurik egiten norberari ezer egokitzen ez zaion bitartean. Bestetik, hiztegi berria ikasi beharra dago: *apelazio, hipoteka, alegazio, errekurtso, e.a.* gaztelaniatik aspaldi hartutako maileguak, askotan entzunak, normalean badakigu zer diren; baina jendeak gutxiagotan entzundako beste mailegu hauek: *probidentzia*, *prekluditu, posizioei erantzun, inhibitu* edo *pertsonatu*?… Zer da *pertsonatu*? Galdetu zeuen inguruko jendeari zer den, eta galdetu zer den *ofiziozko abokatua* edo *ofizioz erabakia*. Maileguak berez, mailegu izate hutsez, ez dira ulerterrazak; erabilerak egiten dizkigu ulertzeko modukoak. Euskara *berri* horretatik ateratako hitzak ere baditugu, baina zeinek ulertu? Hara: *isuna, atzipena, adiskidetzea, kaudimena, largespena, ohartarazpena…* Bai, batzuk badakigu zer diren, baina beste batzuk, zera!

Ez konturatzea *kiwia, bideoklipa, bideokontsola, lonbarda, txipa, budina, bmw-a, ke-guai, da gozada bat,* e.a. entzun egin behar direla, ikasi egin behar direla ulertuko badira, nahiz eta norberak erabili ez horrelako hitzik! Zer ote da *gruyerburu*?

Kaxildo Alkorta
Laguna



Mundua on line

Photoshop laster sarean dohainik

Googlek testu-dokumentuak eta kalkulu-orriak sarean sortzeko eta erabiltzeko aukera eman zuen duela hilabete batzuk, norberaren ordenagailuaren disko gogorrean ezer ere instalatuta eduki gabe. Abantailak asko dira taldean lan egiteko eta formatuak bateratzeko orduan, baina, batez ere, dokumentuak beti sarean daudenez, alde batetik bestera eraman edo posta elektronikoz bidali behar ez direlako.

Adobe-n ere konturatu omen dira abantaila horietaz. Adobe enpresak, PDF formatu ezaguna sortzeaz gain, mundu osoan erabiltzen den argazki-ediziorako programa berezia ere asmatu zuen: Adobe Photoshop. Eta duela gutxi konpainia horrek jakitera eman duenez, 2007ko irailerako Photoshop-en on lineko bertsioa egongo da Interneten, dohainik, iragarkien bidez finantzatuko dena. Google bezalako lehiakide erraldoiak atzean utzi nahi dituzte pauso honekin Adobeko buruek, euren merkatuan gehiago sartu baino lehen. Izan ere, momentuz ordenagailuan instalatuta egon behar duen arren, Googleren Picasa programaren azken bertsioak argazkiak Interneten argitaratzeko aukera ematen du, adibidez. Lehia interesgarria ikusiko dugu datozen hilabeteotan.

Luis Elizondo
L-Elizondo@euskadi.net

EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioa

Euskara eta hizkuntza politikako gaietan elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu dute Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak. Hitzarmenak alde batetik, erakundeek burutu beharrekoak jasotzen ditu, eta, bestetik, eragile pribatuen lana finantzatzeko fondoa zehazten du. Eragileek solaskide bakarra izan dezaten, EEPk eta Jaurlaritzak lankidetza taldea osatuko dute.

Www.gazte-zientzia.com

Zientzia eta teknologiari buruzko web gune berria dugu: www.gazte-zientzia.com. Gazte eta umeei begira sortua, euskara hutsean eta oso modu erakargarrian eskaintzen ditu berriak, elkarrizketak, erreportajeak, bitxikeriak eta esperimentuak egiteko bideak. Beste aukera bat txikiei jakin-mina pizteko eta zientzia kontuak gureganatzeko.

Www.prestakuntza.net

Artez Euskara Zerbitzuak dakarkigu sarera, euskaraz ikasi, bizi eta lan egin nahi dutenentzako toki berri hau. Asko dira euren prestakuntza euskaraz jaso nahi duten langileak, baina oraindik lanari lotutako ikastaro asko eta asko gaztelania hutsean eskaintzen dira. Hori dela eta, gune honetan ikastaroak euskaraz ematen dituzten hainbat irakasle autonomo, erakunde eta akademia bildu dituzte. Euskalduntze-alfabetatzea edo euskaraz lan egiteko trebakuntzari buruzko informazioaz gain, euskaraz eskaintzen den prestakuntza orokorraren berri ere aurkituko duzu.

Thirteenth Annual Conference on Language, Interaction, and Social Organization

Jardunaldi honen bidez, Kaliforniako Unibertsitateak gizakien arteko hizkuntza harremanei buruzko ikerlan eta eztabaidak sustatu nahi ditu. Adituek euren lanak aurkeztuko dituzte hizkuntza, elkarrekintza eta kulturaren inguruan. Antolatzaileak Kaliforniako Unibertsitateko Language, Interaction and Social Organization (LISO) eta Center for Language, Interaction and Culture (CLIC) dira. Maiatzaren 17 eta 19an izango dira Santa Barbaran (Kalifornia). Informazio gehiago izateko: www.liso.ucsb.

LanHitz, enpresetan euskara sustatzeko programa

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ekimen berria jarri du abian lantokietan euskararen erabilera indartzeko: *LanHitz* programa. Ekimen berri honen bidez, lantokietan euskararen erabilera bultzatzeko aholkularitza eta diru laguntzak eskainiko ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Enpresaren esku geratuko da euskara plana abiarazi ala ez, eta, jartzekotan, zer-nolako plana garatu.

Aholkularitzari dagokionez, laguntza eskainiko du jardun eremuak zehazteko eta diagnosia, kudeaketa eta ebaluazioa egiteko; horrez gain, ohiko agiri, terminologia eta esapideak jasotzen dituen banku telematikoa ipiniko du enpresen esku.

Deialdi publikoa egingo da eta diruz lagunduko dira planen diseinua, garapena eta kudeaketa. Gehienez ere aurkeztutako aurrekontuaren %70 jasoko dute enpresek.

Egitasmoaren gainean argibide gehiago emateko web gune bat jarri du abian Eusko Jaurlaritzak: www.euskadi.net/lanhitz.

ZERO AKATS

Harrituta nauka gaur Nekanek. Ez da konturatu mezularitzako motoristak nahi gabe bere boligrafoa eraman duela, eta hori, ez dakit nola esan, baina ez da normala. Bulego honetan ez da inor ausartzen Nekanek mahai gainean izaten dituen boligrafoak ukitzen. Boligrafo urdin, beltz eta gorri bana izaten ditu plastikozko edalontzi batean sartuta, beti buruz behera jarrita, eta hauekin batera arkatza, ondo zorroztuta eta buruz gora, etxea zaintzen duen txakurra bezalaxe, lapurraren eskuan hozka egiteko prest. Boligraforen bat falta duela ohartuz gero, ez dakit nola esan, zoratu egiten da. Lehenengo niri galdetzen dit. "Edurne, zuk hartu duzu hemendik boligrafoa?". Eta gero bulegoko mahai batetik bestera hasten da haren bila, haserre. Nekanek ez du inoren akatsik barkatzen, bere buruari okerrik barkatzen ez dion bezala.



Nekaneren boligrafoak sakratuak dira, horregatik harritu nau hainbeste mezularitzako motoristak eraman eta bera ez ohartzeak. Bulego honetan lan egiten dugunok ondo dakigu ezin dugula bere mahai gainetik ezer hartu eta berak artxibatu beharreko txostenetan erregistro zenbakia hizki argiz idatzi behar dugula, zirriborrorik gabe, akatsik gabe. Ez baitu akatsik onartzen, ezta barkatzen ere. *Zero akats* deitzen diote bulegoko zenbaitzuek Jaurlaritzak kanpaina batean lelo hori erabili zuen garaitik.

Nekane nolakoa den ezagututa, benetan izan da bitxia gaurkoa. Goiz guztia egon da haren edalontzia boligrafo beltzik gabe eta ez da ohartu, eta hori, ez dakit nola esan, baina New Yorkera joan eta dorre bikiak falta direla ez ohartzea bezalakoa da Nekanerentzat. Zerbait gertatu behar zaio.

Batzuetan berari begira geratzen naiz, eta, txostenak artxibatzeko duen modu perfektu hori ikusita, pentsatzen dut munduko idazkari onena izatearekin amets egin behar duela. Eta Alemania bezalako herrialde ordenatu batean bizitzea gustatuko litzaiokeela, etorbide luze eta zuzenez osatutako hiri garbi batean. Ziur asfaltoan zulorik ez duten errepideekin egiten duela amets, lurrean itsatsitako txiklerik ez duten kaleekin. Boligrafoak, errotuladoreak eta grapa paketeak tiraderan ordenatuta dituen bezala ordenatu nahiko luke mundua. Dena bere lekuan, dena txukun. Bere tiradera bezala ordenatuko lituzke hiria eta bulego hau, eta halakorik edukiko balu, baita senarraren bizitza ere. Apustu egingo nuke senar alemaniar bat izan nahiko lukeela, oheratu aurretik arropak aulki baten gainean tolestuta eta dutxako gelaren potoa itxita uzten duten gizon horietako bat. Baina non aurkitu horrelako bat, Alemanian ez bada. Horregatik dago ezkongabe agian, horregatik bizi da bera ere bakarrik. Esan behar baitut ni ere bakarrik bizi naizela, baina, ez dakit nola esan, gauza bat da bakarrik bizitzea eta bestea horrelakoa izatea.

Bazkaltzetik bueltatu garenean, gertatu daitekeena susmatzen hasi naiz. Perfume usaina aditu dut lehenengo, eta gero ikusi dut ezpainak margotuta etorri zaigula. Egunero erabiltzen dituen likrazko praka beltzen ordez, zetazko gona eta galtzerdi beltzez agertu zaigu. Hau ez da gure Nekane, pentsatu dut. Hau maiteminduta dabil.

Eta harrigarriena, honek zita bat dauka gaur. Elkarrekin lan egin dugun bost urte hauetan ez du sekula gizonez hitz egin ere. Beti lanaz.

Irteteko ordua heltzean, gizon alemaniar ilehori bat imajinatu dut haren zain, ondo aparkatutako auto baten barruan. Eta imajinatu dut jatetxe dotore batera joango direla afaltzera eta Nekanek ardoa edan behar duen guztietan ezpainak sikatuko dituela mahai-zapi zuri eta leungarri usainezko batekin. Dena perfektua, berari gustatzen zaion bezala.

Tente jarri da, jaka jantzita. Baina ordenagailua itzaltzera joan denean, beheko aldera begiratu du eta, ez dakit nola esan, baina paralizatuta bezala geratu da. Segundo batzuen ondoren, aulkiaren gainera bota du berriz gorputza eta, geldika, jaka eranzten hasi da berriz.

–Ez zinen irten behar, ala? –galdetu diot.

Ez dit ezer erantzun.

–Nekane, bazatoz? –errepikatu diot, haren mahaira inguratuta. Ezetz egin du buruarekin. Gauza batzuk "pendiente" dituela esan dit, ahots dardaratiarekin, eta bukatu arte geratuko dela. Ez itzaltzeko inprimagailua.

Bere begiak zuzentzen diren lekura begiratu eta konturatu naiz galtzerdian zulo bat egin zaiola. Zuloari begira duen izu aurpegia ikusita, ematen du handik munduko hondamendi guztiak ikusi ditzakeela.

Handik gutxira, igogailurako bidea hartu dudanean, haren ahotsa entzun dut.

–Nork demontre hartu du hemendik boligrafoa? –galdetu du. Eta galderak oihartzun egin du bulego hutsean.

Bueltatu da gure Nekane, pentsatu dut.

Puxika baten antzera zulatu zaio amets goxoa.

Karmele Jaio
Idazlea



Mari Carmen Gallastegi, ekonomialaria:

“Gaur egun, ezberdintasunak konpontzea da ekonomiaren erronkarik handiena”

“Gauzak ahal bezain sinple esplikatu, baina ez behar baino sinpleago”. Einsteinen esana omen da. Horren arabera ari da Mari Carmen Gallastegi (Bergara, 1945), ekonomiaz mintzo denean. Sen kontutzat hartzen du bere zientzia. Irizpide egokiez gain, beste gai asko hartu behar dira kontuan, ekonomiak gaur egun munduan dituen ahal eta gabeziak igarri, ulertu, zuzen interpretatu eta konpontzeko. Azalpen sinpleetatik harantzago dago, inondik ere, irtenbidea. Eta, hala ere, hortxe.

Zuri buruzko zenbait artikulu eta erreportaje irakurri ditut elkarrizketa hau lantzen ari nintzela. Haietako batean diozuna hartu nahi nuke abiapuntu. Ekonomia zentzu kontua omen da.

Seguru asko, nire ibilbideari lotuta dago baieztapen hori, ekonomia ikasi besterik ez baitut egin neure bizitzan. Nahitaez, azkenerako, ekonomiaren betaurrekoen bitartez ikusten dut bizitza bera ere. Burua horren arabera daukat egituratuta eta begien bistakoa iruditzen zait ekonomiaren hatsarreak eguneroko bizitzari aplikatzea. Horrexegatik diot ekonomia sen kontua dela.

Ekonomia politikoa sen ona baino zertxobait gehiago da...

Ekonomiari bururatzen zaizkion politikak agerikoak begitantzen zaizkit neuri, jakinekoak. Neure lanbide aje hori tarteko, beharbada. Eman dezagun politikariak nahi duela agenteek hezkuntza zerbitzu egokiak izatea, osasun zerbitzu onak eta merkeak… Hortaz, zer asmatuko du? Dirua biltzea. Betiere, gehiago hartuko die gehien dutenei. Diru horren bidez, beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskainiko ditu, hots, herritarrek eskatu ohi dituztenak.

Herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak, diozu.

Herritarrok era askotara ematen dugu iritzia. Horra hor, adibidez, oraintxe, etxebizitzaren inguruan piztu den eztabaida. Alegia, sektore publikoak eskaini behar ote duen ari dira eztabaidatzen! Frantzian, Chiracek onartu egin du etxebizitza eskubidea izatea. Aukera, bederen. Sektore publikoak onartzen badu, izaera unibertsala izango du; eskubidea baldin bada, denei eman beharko die. Zer egingo du politikariak eskubidea bermatzeko? Zergak ezarri, diru sarrerak izan... Gero etorriko da nola egin hori. Etxebizitza doan eman behar ote den edo zerbait ordainarazi behar den…

Hori errazago ulertuko dugu denok.

Ekonomiari buruzko eztabaida denok ulertzeko moduko terminoetan egin daitekeela iruditzen zait niri. Badago ekonomiaren oinarrizko arazoen gainean hitz egiterik; edozein lanbidetako jendearekin hitz egin daiteke, bai eta, azkenean, balio komun batzuen inguruan ados jarri ere. Oztoporen bat edo beste izango da terminologia dela eta ez dela, baina, gainerakoan, sen ona erabili besterik ez dugu egin beharko. Baina, ohar bat, bizitza ekonomia baino gehiago da: ekonomia, politika, ekologia, biologia, hezkuntza… gauza asko. Hortaz, kontua interes horiek guztiak uztartzea da.

Hortxe koska, eta galanta gainera.

Adibidez, Urdaibai. Muruetako ontziola kendu eta etxebizitzak egingo ote dituzten esan zidan lankide batek. “Tira, babesgunea baldin bada, zertan egin behar dute ezer!”, esan diot. Eta berak: “Bai, baina kontua da mugitzeagatik ordaina eman beharko zaiela, beharbada!”. Mundu honetan sarri eman behar izaten dugu amore, jende asko bizi garelako berton, askotan, elkarren kontrako interesak ditugunok. Baina elkarren kontrako interesak izatea ere ulergarria da. Politikak behin ere ez dira denontzako onak. Batzuentzat, on; besteentzat, kalte. Eta beste batzuentzat, berriz, ez on eta ez kalte. Enplegu erregulazioa, adibidez, behin ere ez da denon gustukoa izaten.

Esango nuke etxebizitza hutsen auzia ere ez dela isilik pasatuko.

A zer iskanbila! Etxebizitza hutsak dituztenei zerga ezarriko zaiela ari dira esaten. Batzuentzat, zoragarri, etxeak alokatzeko merkatua bultzatuko duelakoan. Beste batzuk, haserre, “Hau nire jabego pribatua da. Gurasoek eman didate oinordetzan!”, esanez. Baina, berez, denok gaude saltsa horretan hitz egiteko moduan. Teorikoak, hau da, ekono-

miako adituak, bestelako ikuspegi eta ñabardurak eskainiko ditu, pertsona arruntari otuko ez litzaizkiokeenak. Errealitateari begiratu hutsarekin ezin irudika daitezke gauza asko.

Ikerkuntza da beharrezkoa. Zure lurraldea da hori.

Irakurketak, ikasketak eta zientzia behar ditugu, bestela bururatuko ez litzaigukeen ikuspegia izateko, ñabardurak eta iradokizunak egiteko. Horrexegatik ematen diot nik ikerketari hainbesteko garrantzia. Ideia berriek eskaintzen dizkizuten ñabardura horiek behar-beharrezkoak dira, erabakiak hartzerakoan, politikariek erabil ditzaten. "Hauxe egin nahiko nuke. Nola egin, ordea?". Ikertzen, aztertzen eta ikasten diharduenari kontsulta egitea komeniko zaie orduan, ikertzaileak beti zertxobait aurrerago doaz eta. "A eginez gero, B, C edo D gerta lekizuke", esango dute. Ikertzailea ez denari, aldiz, B aukera besterik ez zaio bururatuko. Ikasi ez duelako, ez besterik.

Eta ikerkuntzak gurean ba al du behar besteko garrantzirik?

UPV-EHUn ari naiz ni, baina hemengo beste edozein unibertsitatetan egonda berdintsu esango nizuke: gure lana irakaskuntza eta ikerkuntza dira. Halaxe sartu digute buruan. Biak egin behar ditugu. Ikerkuntza dela eta, badago joera dirua aipatzeko, diru inbertsioak egin beharra. Baina, dirua ez ezik, diseinu egokia ere behar du. Ikertzaileak liburuak, aldizkariak, denbora, patxada eta beste behar ditu. Gaur egun, irakasleok baditugu liburuak, aldizkari espezializatuak, bitartekoak, Internet… Baina ez daukagu patxada nahikorik. Egunean egunekoa bizi dugu, bateko ikaslea, besteko telefonoa… Nola jarri ezertan horrela?

Niri harrigarri egiten zait bateko eta besteko ikerkuntza sariak irabazitako pertsona –zu zeu, alegia–, bestelako iragazkirik gabe inori telefonoa zuzenean hartzen jardun beharra.

Kudeaketa lanari eta ikaslearen harrerari dagozkion lanak murriztuko balizkigute, behintzat! Funtsezkoa da hori. Ikerketan aitzindari den munduko edozein unibertsitatetan, diseinua da gakoa: irakaste lana bai, egiten da, baina ez irakaskuntzak, ez kudeaketak ez diote ikertzaileari kentzen ikerketa gauzatzeko nahitaezkoa den patxada, egunean-egunean artikulu berri bat irakurtzeko bakea, edo liburu bateko kapitulu berri bat edo zernahi. Baina bi aste igaro eta lerrorik irakurri ez baduzu, goizetik arratsera lanean jardun arren… Horrek esan nahi du zer edo zer gaizki dabilela.

Patxada diozu. Denbora.

Hori diruz erosten da. Diseinua behar dugu, egunaren erdia irakaskuntzari eta bestea ikerketari eskaintzeko bidea emango digun diseinua. Erdia irakaskuntzari eskainita ere, beste erdiak gure ezagupenak eta jakintza eguneratzeko izan behar du, ikerketa abiada bizian baitoa. Gure herrian ez dira bereizten ikerketa, berrikuntza eta teknologia. Ekoizpen prozesuetan inbertitu besterik ez da egiten hemen, ikerketa mota horren ondorioa berehalakoa delako. Baina Humanitate eta Gizarte Zientzietan, ikerketak ez du berehalako fruiturik. Urte batzuk igaro eta gero, azaldu egiten da emaitza. Horrelaxe gertatzen da oinarrizko zientzietan, hau da Ekonomian, Fisikan, Kimikan, Aeronautikan… Denbora behar da. Baina, gurean, ikerketa eredu jakin bat ezarri da, biogune eta zentro teknologikoak ardatz dituena, teknologiari estu-estu atxikita dagoena, gehienetan. Ez gara saiatu Oxford, Cambridge edo Harvard-en gisako ikerketa eredurik eraikitzen. Bestela esanda, ez dago ikerketa eredu ezberdinen arteko orekarik.

Artikulu bat erabili dizut zuregana baino lehen. Ikerketaz ari zara, eta ereduaz.

Kritikak jaso nituen artikulu hori dela eta ez dela. Bertan, besteak beste, ontzat ematen nuen teknologian ikertzea, enpresaburuei laguntzak eta erraztasunak ematea… Baina eredu hori ez da ez Oxford, ez Cambridge, ez Harvard, ez MIT… Alegia, mailarik goreneko unibertsitatea nahi badugu, bestelako ikerketa eredu bat eraiki beharko dugu, eta ez, hain justu, industria sektore indartsua bideratzeko egindako eredu bat. Ezberdinak dira eta. Horrexegatik azpimarratzen dut diseinua. Nire iritziz, oraindik ere ez da diseinu egokia aurkitu. Asmatzekotan, helburu jakin batzuetarako diseinua topatu dugu, baina ez da behar adina hausnartu, unibertsitateko irakasleok denbora eta patxada nahikoa izan dezagun, egin behar duguna egiteko: irakatsi, eta ikertu. Biak.



Kritikak jaso zenituela esan duzu, artikuluarengatik.

Bai. Diru funts gehienak Industriak bereganatzen dituela esaten nuen. Hori horrela da Euskadin, eta Katmandun. Esan nahi izan dut Industriak kudeatu duela ikerketarako dirurik gehiena, ez dela oinarrizko ikerketa bultzatu. Kritika egin zidatenek zioten, berriz, hori, horrela izatekotan, Hezkuntzaren okerra zela, behar den bezala lan egiten ez duelako. Niri, berriz, iruditzen zait, EAJ-PNVk herri hau bizitza osoan gobernatu duenez –izan bakarrik edo izan koalizioan–, askoz ere gehiago bultzatu duela Industria, Hezkuntza baino. Horretan ez dago zalantzarik. Gobernuan bertan ere askotan utzi du Hezkuntza besteren esku: PSOEren eta EAren esku, alegia.

Industria, aldiz, EAJ-PNVk kudeatu du beti.

Inozoak ere ez gara. Industriakoek esan zidaten oinarrizko ikerketa egiten dutela beraiek ere. "Ados", esan nien, "baina zuek

egiten duzuen oinarrizko ikerketa hori mantal zuriduna da, ez du nahitaez zerikusirik guk unibertsitatean egiten dugunarekin. Zuen egiteko era ez da guk nahi genukeena. Zuek ez duzue Oxford edo Cambridge-ren gisako unibertsitaterik egiteko asmorik. Biogune sarea egin nahi duzue, zentro teknologikoak… baina ez besterik". Oso gogorra izan naizela esan didate. Hezkuntzari bere errua egotzi behar omen nion! Txikienari errua leporatu? Horrek ez du balio! Gobernu osoari egotzi behar omen nion errua... Esan nahi dut, ikerketa abiarazi dutela, baina ez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egingo lukeen moduan. Beste modu bat, beste kultura bat, beste diseinu bat behar dugu unibertsitatean.

Oxford, Cambridge, Harvard eredu harturik ari zara hitzean eta hortzean. Zenbateraino eragiten diote zure diskurtsoari zuk atzerrian egindako ikasketa eta egonaldiek?

Erabat. Ingalaterran egon nintzen lehenengo, eta AEBetan gero. Oxford eta Cambridge aipatu ditut apropos. Izan ere, egin berri den munduko unibertsitate onenen sailkapenean, lehenengo bostetan Oxford eta Cambridge besterik ez dira ingelesak. Gainerakoan, Harvard, MIT, Chicago eta horiek ageri dira. Ondoren, gainerako ingeles unibertsitateak ditugu, UPV-EHU baino askoz hobeto kokatuta baitaude *ranking* horretan. Ingalaterratik edo AEBetako unibertsitate batetik etorri eta zer esan hemengo egoerari buruz? Are gehiago, zer diote oraingo gazteek, AEBetako unibertsitateetatik datozenek, doktoregoak eginda, han bertan irakasle jardun duten horiek? Hona etorri eta hau zera iruditzen zaie… Marte!

Zertan da gazte horien izua?

Ez dute ulertzen ikertzaileak eta ez-ikertzaileak berdin irakatsi behar izatea. Ingalaterran eta AEBetan ez da horrela. Ikertzaile ona baldin bazara, denbora erosiko dizute, irakaskuntza orduak murriztuko dizkizute. Atzerritik datozen horiek ez dute ulertzen hainbat kudeaketa lan egin behar izatea. Egia da egoera aldatzen ari dela pixkanaka-pixkanaka, baina bidea egin behar du oraindik.

Hezkuntza sailburu izan zinen 1991n. Orduko koalizioa hautsi izan ez balitz, karguan segitu izan bazenu, unibertsitateko ikerketa aitzinaraziko al zenukeen?

Hasteko, Ekonomia sailburua nintzen, ez Hezkuntzakoa. Gobernu Kontseiluan eztabaidatu izan balitz, nik eredu orekatuago baten alde egingo nukeen, dudarik gabe. Dena dela, niri egokitu zitzaizkidan urteak oso latzak izan ziren, langabezia tasa oso handia zen eta. Horrelako egoera batean, babestu behar duzuna babestu egin behar duzu, eta orduan, enpresei eustea zen lehentasuna, lanpostuei eustea. Huraxe zen presakoa garai hartan. Askotan horixe gertatzen da, presakoak ez dizula garrantzitsua egiten uzten. Denbora gehiago izan banu, saiatuko nintzatekeen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak presentzia handiago izan zezan ikerketa eredu horretan. Gaur egun, adierazleek diote unibertsitatean gutxi ikertzen dela. Eta nola ikertuko da, bada, eskolaz eta kudeaketa lanez leporaino baldin bagaude!

> **"Bizitza ekonomia baino gehiago da: ekonomia, politika, ekologia, biologia, hezkuntza... gauza asko"**

Bukatu baino lehen, zein dira ekonomiaren arazoak gaur egun?

Erronka handi bat dagoela esango nuke, etxebizitzarena baino handiagoa: ezberdintasunak. Sistemak eragiten dituen ezberdintasunak dira, batetik, errenta banaketari dagokiona eta, bestetik, oraingo emigrazioa sorrarazten duena. Uste dut arnasa hartzeko modua duten ekonomialariak, eguneroko lanak itota bizi ez diren horiek, hori nola konpondu aztertzen ari direla.

Ezberdintasunak…

Bai; izan ere, ezberdintasuna kaltegarria da berez, arazo mordoa eragiten ditu: bateko gerrak, besteko biolentzia, emigrazioa… Ezberdintasunek zaildu egiten dute klima aldaketari behar bezala ekitea. Ezberdintasunek galarazten dute sistemak eraginkortasunez lan egin dezan. Eta ekonomiaren helburua, izan, eraginkortasuna da! Hortaz, konponduta beharko genituzkeen arazoei baliabideak eskaini beharra, berez da arazoa. Iritzi etikoak gorabehera, onartezina da jendea gaizki bizitzea… Globalizazioa –jarduera ekonomikoak deslokalizatzea, hain zuzen–, ondo kudeatzen ez badugu, ezberdintasunak areagotu egingo dira. Jendea aurreikusten hasi den beste arazo larri bat honakoa da: baliabideen erabilera.

Energia, ura…

Baliabideak, hitzaren esanahi zabalenean. Alegia, espezie inbaditzailea gara Lurrean. Jakintsu entzutetsu ugari dago horretaz kezkatuta. Orain arte, natura hor zegoela eta baliatzeko genuela uste genuen. Gaur egun bestela ikusten da hori. Energia arazoa, adibidez. Edo ur eskasia. "Zertan ari gara, ordea?", dio gaur egun jendeak. Energia arazo latza dugu. Energia iturriak eta! Energia kaltegarri gehiegi erretzen gabiltza. Arazoa areagotzen ari da, bor-bor dago, irakiten. Beste arazo bat, globalizazioa kudeatzea. Ez dago jakiterik zeinek kudea lezakeen! Hau da, nola ekin arazoei, gaur egungo erakundeen bidez. Izan ere, oraingo erakundeek ezin konpon ditzaketen arazoak ditugu… "Arazo nagusiak" esan nahi dut. Horietaz gain, beti izango da halako teorema jakin bat egiaztatu nahi edo beharra, eta abar. Baina, larrienak, horiexek: pobrezia, Afrika, energia…

Miel A. Elustondo
Idazle eta argazkilaria

Toki telebista digitalak aro berria du EAEn

Udazkenean onartu zuen Jaurlaritzak toki telebistei buruzko dekretua

90eko hamarkadan indar eta kopuru handiz ekin zioten toki telebistek Euskal Herrian. Berrogeita hamar telebista inguruk jo zuen espazio horretara. Eztandaren ondoren, isilunea batzuetan, geldiunea gehienetan. Joan den udazkenean, toki telebistaren oraina eta geroa arautuko dituen dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta ateak zabaldu etorkizunari.

Joan den urriaren 3an tokiko telebista digitalaren gaineko dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Bertan, zerbitzua eskaintzeko zuzenbide esparrua ezarri eta kontzesiodunek etorkizunean bete beharko dituzten baldintzak azaldu zituen; besteak beste, tokiko informazio eta edukiei, hizkuntza erregimenari eta bestelako zenbait aurreikuspeni dagozkien betebeharrak zehaztu zituen.

Azaroaren 28an, berriz, EAEn lurreko uhinen bitartez hedatuko den tokiko telebista digitalaren (LTD) kontzesiorako lehiaketa publikoa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak. Jakinarazi zuenaren arabera, baimenak eskuratu nahi dituzten enpresa eta erakundeek abenduaren 29tik martxoaren 23ra bitarteko epea izango dute beren eskaintzak aurkezteko. Ondoren, kontratazio mahaiak sei hilabeteko epea izango du proposamena egiteko. Legeak ezartzen duenez, euskararen erabilpena lehentasunezkoa izango da esleipen prozeduran, betiere zerbitzu emaileen baliagarritasun ekonomikoa eta teknikoa aintzat harturik. Bestalde, udalek LTD zerbitzua eskaintzeko lehentasuna izango dute, baina esleipen hori ez da lehiaketa bidez egingo, nahiz eta eskaera egiteko gainerako erakundeen epe berbera izango duten.

Espainiako estatuko plangintza teknikoaren haritik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan hamabost barruti daude (Araban 2, Bizkaian 6 eta Gipuzkoan 7), eskualdeen banaketaren araberakoak, oro har. Barruti bakoitzak seinale bat izango du, eta horietariko bakoitzean, berriz, lau kate sartzeko aukera. Udalek zerbitzua eskaintzeko duten lehentasuna dela eta, Eusko Jaurlaritzak kanal bana gorde die Gasteiz, Arrasate, Donostia, Zarautz, Irun, Barakaldo eta Getxoko udal barrutiei.

Programazioa eta euskara

Lizentziak banatu behar eta hainbat baldintza ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak. Batzuk programazioari dagozkio; hizkuntza erregimenari, aldiz, bestetzuk.

Programazioari gagozkiola, adibidez, operadoreek beren jatorrizko programak igorri beharko dituzte egunean lau orduz gutxienez, eta astean 32 orduz. Gainera, emitituko diren programen erdiak operadoreak berak ekoitzi beharko ditu. Haien edukiak, berriz, toki telebistaren eremu edo eskualdearen inguruko informazioa azaldu beharko du.

Legez ezarritakoaren arabera, telebista kateek ezin izango dute programazioaren %25 baino gehiago beste kanal batzuekin batera katean igorri. Programazioan euskal musika eta ikus-entzunezko produkzioak izango direla bermatuko da eta, nahitaez, euskal egile eta kantarien lanek emisio denbora osoaren %15 hartuko dute.

Hizkuntza erregimenaz denaz bezainbatean, ez da gaztelania hutsezko tokiko telebista digitalik izango: guztiek egin beharko diote lekua euskarari. Udalek kudeatutako kanaletan, esaterako, euskarak programazio denboraren erdia hartu beharko du, eta elebidun kopuru handiagoa duten udal barrutietan areagotu egingo da ehuneko hori.

Enpresa eta erakunde pribatuek kudeatutako telebistetan ere euskararen presentzia euren eremuko elebidunen indizearen baliokidea izango da, eta ez da inoiz %20 baino txikiagoa izango.

Iraganetik gerora

Tokiko ikus-entzunezkoak berriak dira oraindik Euskal Herrian. Eskualde edo herrietako telebista gehienak 90eko hamarkadan sortu ziren. Lehenengoa, hala ere, 1987an abiarazi zuten, Plentzia Telebista, geroko batean bidea eten zuena. Haren ondotik berrogeita hamar telebista baino gehiago izan ziren garai batean. 1990ekoa da GoiTB eta 1991 eta 1992 artean sortuak, berriz, Zarauzko Telebista, TeleBilbao eta Urnieta Telebista. 1994an hasi ziren emititzen TeleDonosti eta Eibarko Kateberri, eta 1995ean Ermuko Telebista. Handik urtebetera, Canal Gasteiz, TeleVitoria, Iruñeko Canal 4, Tafalla Television eta Oarso Telebistaren txanda izan zen. 1997koak dira Canal Bizkaia, Txingudi Telebista, Xaloa Telebista eta Aldudarrak elkartearen Ele Bista. Geroagokoa da Ttipi-Ttapa Telebista…

Telebista kopuru handi hori bazter utzita, toki telebistaren ibilia oso gorabeheratsua izan da gurean. Aldez edo moldez toki telebista baten proiektuari ekin zioten gizarte ekimen eta mugimenduek arazo eta zailtasun handiak izan dituzte beren burua nabarmentzeko, hartze egokia ziurtatzeko edota hedabidearen gastu handiei aurre egiteko. Ondorioz, eta sortu ziren sasoiko adorea handia izanagatik ere, sektoreak geldiunea izan zuen, garatu ezinean. Orain, aldiz, mugimendu garaia heldu da berriro ere.

Dudarik gabe, agertoki berria du toki telebista digitalak Euskal Herrian. Dekretua onarturik, berriak dira joko arauak, berriak eragileak, berriak egiturak. Aurreikuspenen arabera, 2008rako prest izango dira telebista digitalak. Aro berri baten hasiera izango da…



Edurne Basoa Gonzalez

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

Gertutasuna, eduki propioak eta euskararen presentzia. Horiek izan dira Kultura Sailak hizpide izan dituen helburuak tokiko telebista digitalaren zerbitzua arautzerakoan, horiek direlako, azken batean, tokiko telebistaren ezaugarririk nabarmenenak.

Tokiko telebistek hurbileko esparruari lotutako informazioa eskaini behar dute. Gaur egungo gizartean tokian tokikoak funtsezko lekua du eta hortxe dute tokiko telebistek gunerik behinena. Bestalde, gaur egun aurreikusita dagoen planifikazioaren arabera, 2010. urtean estatu mailako 32 telebista kanal berri sartuko zaizkigu etxean. Horretaz gain, Euskadik, dagoeneko, multiple digital bat (4 telebista kanal) du planifikatuta eta itzalaldi analogikoa gertatzen denerako, beste multiple bat izango du. Eta horrekin batera, aipatu ditugun tokiko telebistak, eskualdez eskualde beste multiple digital bana, egungo teknologiarekin lau telebistarentzako bidea eskainiko duena. Digitalizazioak goitik behera aldatuko du gaur egungo egoera eta hurbiltasunak izugarrizko garrantzia izango du. Kanpotik datorkigun eskaintza ikusita, orekari eutsi behar diote tokiko telebistek, inorekin lehian aritu gabe.

Legez, tokiko telebistek egunero 4 orduz edo astean 32 orduz emititu behar dute jatorrizko programazioa eta horren erdia operadoreak berak ekoitzi behar du. Zama izan daitekeen betekizun hau errazteko, sindikazioaren bidea proposatu da. Hauxe hartuko da sindikazio bidezko emisiotzat: euskal kulturaren esparruko tokiko bi telebistak edo gehiagok –elkarlanean eta esklusiboki– ekoitzi eta, gainera, beraiek zuzenean edo eurentzat hirugarren batek gauza ditzaketen jatorrizko produkzioaren emisioa.

Hizkuntzari dagokionez, euskara lehentasunezkoa izango da tokiko telebista guzti-guztietan. Proposatutako hizkuntza ereduak barruti bakoitzaren egoera soziolinguistikoa hartuko du aintzat, bertako euskaldunen ehunekoari jarraituz. Udalei partikularrei baino betebehar gehiago ezarri zaizkie. Gutxieneko orokor batzuetatik abiatuta, barruti bakoitzeko indize soziolinguistikoaren araberako kuota sistema ezarri da, herritarrek euskaraz zein gaztelaniaz informazioa jasotzeko eskubidea bermatuta izango dutela ziurtatuz. Gutxieneko horietatik gora, euskara hutsezko emisioak egiteraino aukera dago eta horiexek lehenetsiko dira, bideragarritasun baldintza teknikoak eta ekonomikoak betetzen badira, behintzat.



Iñaki Uria

Hamaika Telebista taldeko zuzendari nagusia

Deia-Noticias, *Gara* eta *Berria* egunkariek zuzentzen dituzten komunikazio taldeek (CMN, EKHE, EKT) bat egin zuten 2006ko udan talde berri bat osatzeko –hau da, Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea–, horretarako Euskaltel, Elkar eta Bainet enpresak sozietate berrira erakarriz.

Talde berriaren egitekoa da euskaldunen arteko komunikazioa euskaraz egiteko aukerak hedatzea, eta horretarako, tokian tokiko telebistak sustatuko ditu lehendabizi.

Gero eta telebista kate gehiago sartzen dira gure etxeetan, eta horietatik gehienak Euskal Herritik kanpo ekoitzitakoak dira.

Horrek, bistan da, berebiziko garrantzia dauka eguneroko informazioa ekoiztean, munduaren ikuskeraren antolatzean, gure ohiturak moldatzean eta gure nazio nortasuna osatzean. Euskal komunikazio esparruaren egoera kezkagarri horretan, bereziki arduratuta gaude euskarak telebista esparruan duen presentzia ahularekin. Merkatua ezagutzen duen edonork daki gaur egun dagoen euskarazko eskaintzarekin ezinezkoa dela adin eta gustu guztiak asetzea.

Orain, digitalizazioa etortzeaz batera, aukera berriak sortu dira telebista kate gehiago izateko. Horien artean tokian tokiko telebista digitalak egiteko aukera datorrela ikusi eta horri eutsi nahi izan diogu.

Hamaika Telebistak eskualde bakoitzean euskarazko telebista bat sustatu nahi du. Horixe da bere asmo nagusia. Euskara ahalik eta gehien zabaltzea telebista eremura. Azken finean, euskarazko telebista eskaintza handitu eta zabaldu nahi dio euskal teleikusleari, euskal herritarrari.

Lizentziak lortzeko lehiaketa martxan da dagoeneko eta proiektuak prestatzen dihardu une honetan Hamaika Telebistak. Sorrera unean agindu bezala, eskualdez eskualde, bertako eragileekin elkarlanean ari da prestatzen proiektuak eta beroiek kudeatzeko sozietateak.

Ilusio handia piztu zuen Hamaika Telebistak bere sorrera iragarri zuenean, bertan bildutako komunikazio taldeen jatorri eta aniztasunagatik, besteak beste. Hilabeteak aurrera, azpimarra dezakegu oinarri sendoen gainean eraikitako proiektua dela, euskararen eremua zabaltzen lagunduko duela eta elkarlanean oinarritzen jarraitzen duela.

Ez da gutxi. Denak beharko baitira telebista esparruan txoko bat egin eta iraun ahal izateko.



Angel Irastorza

Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien Sustapeneko zerbitzuburua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Lurreko Telebista Digitalak (LTD) aro berri bat iragartzen du informazio teknologien eremuan. Aro hori definitu gabe dago oraindik, baina, seguru asko, errealitatea izango da urte batzuk barru, gaur egun telebista analogikoa, sakelako telefonoa edo Internet diren bezala.

Gai hau dela eta, joan den azaroan burutu zen jardunaldi baten berri eman nahi nuke: "Lurreko Telebista Digitala. Komunikazio-eredu berriak", horixe izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskadiko Ikus-entzunezko Klusterrak (EIKEN) eta Bic Berrilan zentroak antolatuta Miramongo Teknologi Elkartegian egin zen jardunaldiaren leloa. Gogoeta oso argigarria gertatu zitzaigun, hainbat alderditan gertatu ere. Oso urruneko esperientziak agertu ziren (T-Gobernu Plataformak; Hego Koreako Gangnamgo barrutia Seulen; Erresuma Batuko Digitv…). Espainiako estatuko egoera, aldiz, askoz ere latzagoa dela ikusi zen, eta hainbat ahulezia utzi zituen agerian; eskuarki, ahalmen interaktiboko dekodifikatzaile eza.

Horrek are zalantza handiagoak eragiten ditu LTDk egin lezakeen ekarpenari buruz, balio erantsiko zerbitzuak garatzeko garaian batez ere, irudi kalitate hobea edo kanal kopuru handiagoa ekarriko dituela aparte utzita.

Gure herriari dagokionez, zerbitzu publiko eta pribatuak eskainiko dituen LTD interaktiboa garatzeko berez dauden arazo "orokorrak" ez ezik, populazioaren tamaina eta merkatu objektiboaren arazoak erantsi behar ditugu. LTD kostu handiko plataforma da, eta bere errentagarritasun ekonomiko eta soziala –iraunkortasuna, horrela esan nahi badugu– ezezaguna da oraindik ere; eta are ezezagunagoa tokian tokiko esparruan.

Azken finean, bai gaur bai atzo, sektorearen benetako kezka negozio eredu berria da. Bestela esanda, publizitate merkatuaren banaketa eta plataforma edo komunikazio kanal bakoitzak on line bidezko salmenta eragiteko izango duen gaitasuna.

Gobernuak, oraingoz, dinamika horretatik aparte samar daude, baina ez guztiz aparte. Agintariek LTD herritarrengana heltzeko aukera berritzat hartu behar lukete (T-Gobernua eta T-Administrazioa, alegia), zerbitzu erraz eta sinpleak eskainiz. LTD Interneti eta dispositibo mugikorrei erantsiko zaie laster eta horrek zerbitzu publikoen eraginkortasunean sakontzea ekarriko du.



Jose Inazio Basterretxea

Gizarte eta Komunikazio Zientzietako irakaslea. UPV-EHU

Ariketa polita da buruarentzat, ikusten ez denaz aritzea eta horien aurrean sinesbera izatea. Nolabait esatearren, honako hau da: udako uztak zelako fruituak ekarriko dituen asmatzen jartzea eta amesten hastea bezalakoa. Kontu erakargarria.

Laster lur gaineko telebista digital berriak jarriko dira abian gure artean, Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta aukera hori onuragarria al da euskararentzat?

Iruditu, iruditzen zait aukera onuragarria ez eze, paregabea ere badela. Paregabea eta ihes egiten ezin uztekoa. Euskarazko telebista berria, orain ez bada, noiz?

Komunikazio, kultura eta teknologia alorreko zenbait enpresak bat egin dute Hamaika izeneko talde eragilea sortzen, euskara hutsezko telebistak abiarazteko. Irudipena dut beste enpresa talderik ez dabilela euskarazko telebistak sortzeko ahaleginetan. Eta "elebidun" diren horietan, ez dut federik.

Inoizko enpresa eta politika sinergiarik handiena jarri da martxan Hamaika taldearen egitasmo horrekin. Guraso askoren kumeak bildu dira. Hedabideen bidez jakinarazi denaren arabera, luzeak izan dira sortzaileen arteko negoziazioak. Eta zailak.

Azken txanpa moduko batean sartu da asmakizuna. Proiektuak hausnartu eta aurkeztu behar dira. Erditzeko unea ari da hurbiltzen. Orain arteko sinergiei, sinergia giltzarriago bat erantsi behar zaio: adostasun kulturala eta identitarioa. Zeren, oroz gain, "zerbaitetarako" da telebista. Ahalegin handia izan arren, gaur egun ez da nahikoa euskarazkoa egite hutsa.

Tokian tokiko eragile euskaldunekin hitzartu behar du Hamaikak zer-nolako telebista eratu eskualde bakoitzean. Zer-nolako eduki kulturalak sortu eta igorri. Zer-nolako kudeaketa sistema sustatu. Eduki sinbolikoen kontsumitzailearen esku-hartzea nola bideratu. Langileak eta profesionalak nola hautatu.

Txikiagoa denarekin adosteko gai izan behar du Hamaikak. Ekonomikoki txikiagoa denarekin. Gizarte proiekzioan txikiagoa denarekin.

Miel A. Elustondo
Idazle eta argazkilaria

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* (2. itzulia: A, B, C letrak) eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa: ezaugarriak eta jokaerak

1. Hizkera erkidea eta terminologia juridikoa

Aspaldiko kezka batek bultzaturik, bagatoz, beste behin ere, arlo jakin batera, alegia, euskararen hiztegigintza akademikoa eta azken urteetan garatzen ari den euskarazko terminologia juridiko-administratiboa uztartzera. Gure oraingo ahalegina, aurrekoetan bezalaxe, zuzenbidearen sailari egokituko zaio, zehaztu ahal izateko, Euskaltzaindiak *Hiztegi Batua* deituriko horren bidez, eta beraren bigarren itzulia dela eta, zer lexiko juridiko-administratibo barruratu duen eta barruratze horren zergatiak. Horretarako, Euskaltzaindiak orain arte bigarren itzuliaz ondu dituen hiru letra (A, B eta C) ikertu eta konparazioak egingo ditugu, zer non azpimarratzeko eta eragile juridiko euskaldunari behin-behineko emaitzak emateko.

2. *Hiztegi Batua*: makro eta mikroegitura

Hiztegi Batua denaz bezainbatean, eta makroegituraren aldetik, esan daiteke lehen itzuliaren irizpide berberak betetzen direla, hau da, sarrera eta azpisarrerak hurrenkera alfabetikoan ematen direla, sarrera bati dagozkion azpisarrera tematikoak kontuan hartuz. Sarreren ikuspegitik nabarmentzekoa da hitz osoa eskaintzea, kategoria gramatikala gorabehera. Azpisarreren kasuan, aldiz, azpimarratzekoa da zuzenbidean ugari diren izen-multzoak ematea (adibidez, **Batzar Nagusi** pl.: *Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak*; **batzar orokor**: *bankuko akziodunen batzar orokorra*).

Mikroegituraren aldetik, begien bistakoak dira aldaketak, batez ere hitz juridiko-administratiboetan, eranskinean igarri bezalaxe, hitz berriak askoz gehiago baitira, lehen itzuliko hitz berridatziak baino. Xehetasun gehiago ere ematen da, hala sarrerei emandako adiera berrien bidez, hain zuzen ere, zuzeneko zerikusia dutenak arlo juridiko eta administratiboarekin (esaterako, **apelatu 1**, apela, apelatzen. *du* ad. *Zuz*. 'gora jo'), nola adibideen bidez (**ahalorde** iz.: *abokatuari eskura eman zion ahalordea*), hiztegigintzaren hurrengo pausoa (adiera zehaztea eta adibide oso-osoak gaineratzea) iragarriz.

3. Lematizazioa, marka teknikoak eta hitz markatugabeak

Lematizazioari dagokionez, ez dago berezitasun handirik bigarren itzuli honetan. Hortaz, sarrera bereizietan baino, sarrera nagusien zerrendan eta hurrenkera alfabetikoan eman dira hitz juridiko-administratiboak ere. Aipatzekoa da, dena den, zuzenbidean ugari diren esamolde eta esapide lexikalizatuen onespena; lehen esan bezala, halakoak gehienetan hitzaren azpisarrera gisa bertakotu dira.

Marka teknikoen edo laburduren alderdian, hiru izan dira gure ikerketa-gaiak: *Zuz*., *Admin*. eta *Pol*. Emaitzak ere, halakoxeak, bi itzulien arteko haztaketa eginda:

	1. itzulian	2. itzulian
***Zuz.* markadunak**	0	14
***Admin.* markadunak**	0	3
***Pol.* markadunak**	0	3

Eurok zein diren ere jasota dago:

- ***Zuz.* laburdura dutenak:** abal, abal(-)emaile, abaldun, abandonatu, abusu, adskribatu, aktuario, akzio, apelatu, aurkapen, auzi-ihesean egon/izan, auzialdi, auzibide, berehalako auzi.
- ***Admin.* laburdura dutenak:** anexio, anexionatu, atxikipen.
- ***Pol.* laburdura dutenak (horietatik bik, aldi berean, *Admin.* marka ere badute):** aliantza, anexio, anexionatu.

Esan gabe doa, bestalde, marka eta laburdurarik gabeko hitz juridiko-administratiboen kopurua askoz handiagoa dela. Gure estatistikak nahiko adierazgarriak dira, hitz juridiko-administratiboen kopurua zenbat igo den bigarren itzuli honetan jakiteko:

HIZTEGI BATUKO ZENBAKIAK[1]

	1. itzuliko hitzak guztira	1. itzuliko hitz juridikoak	Ehunekoak	2. itzuliko hitzak guztira	2. itzuliko hitz juridikoak	Ehunekoak
A letra	1.796	193	%10,75	5.316	326	%6,13
B letra	1.956	169	%8,64	4.413	178	%4,05
C letra	13	0	%0	25	1	%4,35
Guztira	3.765	362	%9,61	9.752	503	%5,16

[1] 1 eta 2. itzuliko hitzak guztira zenbat diren jakiteko, Euskaltzaindiak berak emandako datu ofizialak erabili dira.

Pisuaren aldetik guztiz alderagarria da hau, esaterako, gaztelaniaren kasuarekin. DRAE´01 delakoan, kasurako, zuzenbideko sarrerak 8% dira, zenbakiz hirugarrenak, medikuntza eta itsas garraioaren ondoren. Nolanahi ere, bada hor desberdintasun agerikoa, gaztelaniaren kasuan hitz markatuak sartzen baitira zenbaketan, gure kasuan ez bezalaxe.

4. Hitzen ezaugarriak

Horiek horrela, beharren ikusten dugu hitzen aldetik sailkatzelana egitea, berri-berri direnak eta berridatziak nondik datozen atzemateko. Irizpideak hauetara:

4.1. Euskalki-markak

Hitz juridiko-administratiboei eta, oro har, hizkera juridiko-administratiboari dagokienez, maila formala, jasoa da nagusi. Horren ondorioz, hitz sartu berrietan euskalkien marka ez da ugariena. Salbuespena izan daiteke *Ipar.* marka, euskalki horretan hitz juridikoen altxorra ondo islatuta baitago bigarren itzulian:

- *Bizk.* markadunak: abespeluan, alogereko, arduragabeko.
- *BNaf.* markaduna: auzapezgo.
- Ez da *G-B* markadunik aurkitu.
- *Gip.* markaduna: bailara.
- *Lap.* markaduna: auzapezgo.
- *Naf.* markadunak: aktiboan*, bastart.
- *Zub.* markadunak: arartekari, arra-erosi, auzo(-)etxe, bankarrot, berbal, botigoa.
- *Heg.* markadunak: abisatu, aiuntamentu, aprobetxamendu, aprobetxatu, balorazio, beka, bekadun, botatu.
- *Ipar.* markadunak: abertimendu, abisatu, aktiboan*, akusu, aprobatu, arra-erosle, arrastatu 2, arrobatu, arrobatzaile, arrobatze, artatu, asuratu, atzetu, axuant, baimendu, bastart, batetaratu, batetaratze.

4.2. Aspaldiko hitzak eta gutxi erabiliak

Zah. markak ere baditu bereak, formaltze-prozesuarekin batera, ezaugarri bizia baita hiztegi juridiko-administratiboan aspaldiko hitzak erabiltzea, nahiz eta horiek muga argiak izan euskararen aldetik, batik bat euskal herrialde jakin baten foru-tradizio juridiko zehatz bati egokitzen zaizkionean: abeniko, abenitu, absolbizio, akordatu, akusamendu, akusari, akusu, alokazer, aprobatu, audientzia, baratari, behargile, bekulari, bidegabeztatu, bilkuia, bilkuntza.

Erabileraren aldetik ere, gutxi erabiliak eta gaur egun gutxi erabiltzen direnak (*g. er.* eta *g.g.er.,* hurrenez hurren) bereiz daitezke. Bigarren horiei dagokienez, kasu bat besterik ez da atzeman (*auzi eman* delakoari dagokiona, alegia). Besteak, berriz, ugariagoak dira, kasurako: aginterri, ahaiko, akusamendu, alogeratu, alokazer, antolaera, atzetu, autogobernu, auzi(-)etxe, baiduri, berjabe, bidegabeztatu.

4.3. Zuzenbidearen alor desberdinetakoak

Nabari denez, nagusi dira hitz orokorrak, arlo juridiko berezienak baino. Nolanahi ere, hiruzpalau arlo nagusi bereiz daitezke:

- Arlo orokorra: abokatutza, adierazpen, adjudikazio, arauhauste…
- Zuzenbide publikoa: aliantza, anexio, administrazio(-) zuzenbide, Batzar Nagusi…
- Zuzenbide pribatua: abal, adopzio, berrerosi…
- Arlo horien arteko oreka begien bistakoa da.

5. Ondorioak

Hitz juridiko-administratiboak ugariak dira *Hiztegi Batua* izenekoan. Horrek baieztatzen du, (1) lexiko-mota horrek gizartebizimoduan pisua eta garrantzia duela; (2) euskarazko lexiko juridiko-administratiboaren normatibizazio- eta normalizazio-prozesuak nahiko bateratuak doazela; (3) bi prozesu horiek berriak izan arren, arin barruratu direla horrelakoak hizkuntzaren erabileran; (4) erabat erabakigarri izan dela, bidegintza horretan, euskarak azken urteetan lortu duen ofizialtasuna, batez ere esparru juridiko-administratiboak moldatzeko tenorean; (5) euskalkien ekarpenak ikusgarriak izan arren, hitz erkideez osaturiko arloa dugula, *Hiztegi Batua*ren barruan, zuzenbide eta administrazioarena; eta (6) gero eta esanahi espezializatuagoak dituela euskarak zeregin hauetan, esparru juridiko-administratiboetatik harago doazenak, eta eguneroko bizimoduan eragina dutenak.

Nabari-nabaria da, bestalde, hizkera erkidearen zein hizkera berezituen arloan gero eta zabalagoa dela hitz hauen presentzia. Horrek, zer esanik ez, planteamendu berriak ekarri beharko ditu, hiztegigintza espezializatuan nahiz arruntean. Hasteko, gero eta premia larriagoan gaude, Euskaltzaindiak iragarri duen *Euskaltzaindiaren Hiztegia-adierak eta adibideak* eskura izateko. Hasian hasi, edozein hiztegigintza espezializatu eta berezituak ezinbestean erabili beharko du *Hiztegi Batua*, bertan, hitzak ez ezik, joerak eta jomugak ere agerikoak direlako, bestelako hiztegigintza baldintzatuko dutenak. Azkena, eta ez laburrena, corpusen beharra, orain arte egindakoa bildu eta eginkizun berriagoetan sartu aurretik hausnarketa sakona egiteko, corpus horiek alor juridiko eta administratiboan sekulako euskarria izan dezaketelako, azken hogeita bost urteetan ondu den testugintza juridiko-administratiboan.

Andres Urrutia Badiola
Esther Urrutia Idoiaga

Zuk nahi duzuna



Ez neukan etxera itzultzeko batere gogorik. Galdu egin nahi nuen, desagertu, aienatu, beste bat izan, inor ez izan; eten, behingoz eta betiko, ez amarekin baina neure buruarekin eta nik jaioz geroztik egindako guztiarekin lotzen ninduen zilbor-heste ikusezin baina astun, itogarria. Mundua eta ni, azkenean bakarrik! Benetan biluzik azkenean!

Orduantxe, pare-parean, zer agertuko begien aurrean eta neska gazte bat auto-stop egiten eta sakelako telefonoz mintzatzen.

–Azkoitira? –galdetu nion, autoa gelditu, haren parean jarri, musika itzali eta aldameneko atea zabaldu ondoren.

–Bai, bueno... Elgoibarra –erantzun zidan, autoan sartzean, isilka. Sakelako telefonoa eskuekin estaltzen ari zen, bestaldetik hizketan ari zitzaionak entzun ez zezan.

Elgoibarra joateko, Azkoitira joan behar genuen lehenik, nire etxe aurretik pasatu eta beste hamabi kilometro egin. Ez zitzaidan axola, neuk eramango nuen.

–Sartu, eramango zaitut.

Auto barruan, sakelako telefonoa belarri ondoan jarri zuen berriro, eta isilik jarraitu zuen tarte batez.

–Ez... ez naiz joango –esan zion gero, niri begiratu gabe, telefonoz bestaldekoari–. Ez nauzu aurkituko, alferrik ari zara... Zergatik ez didazu goizean deitu?... –Kraskatu egin zitzaion ahotsa–. Ez nago haserre, baina ez zaitut ikusi nahi... Ez dakit... Ikusiko dugu... Berdin zait, oraintxe bertan berdin-berdin zait...

Negarrez ari zen.

Leihoa ireki eta harrika bota zuen sakelako telefonoa, amorru biziz.

–Berdin zait, berdin zait... –errepikatu zuen, malkoek itotako ahotsez.

Eskuekin estali zuen aurpegia, zotinka.

–Zerbaitetan laguntzea nahi duzu? –galdetu nion, pixka bat geroxeago. Azkoititik gertu geunden.

–Ez, ez, eskerrik asko –desenkusatu zen, zotinek utzitako tarteak baliatuz.

–Edozer gauza behar izanez gero, esatea besterik ez duzu –ausartu nintzen–. Ez daukat batere presarik etxeratzeko. Eta gogo handirik ere ez, egia esan.

Begien aurrean neukan neure etxea. Etxape osoan neurea zen argirik gabeko leiho bakanetako bat. Lan egunaren ondorengo telebista aurreko atsedenaren ordua zen. *Prime time*.

–Ez, ez, lasai, ez kezkatu niregatik –esan zidan, negar egiteari utzi gabe.

Soseguz ari zen negarrez, eta ez zirudien ni ondoan izateak kezkatzen zuenik. Harrigarria gertatzen zen hori haren gaztetasuna ikusita, are harrigarriago ezezagun baten ondoan zegoela kontuan hartuta. Inoren autoan.

Niri gustatzen ari zitzaidan haren negarra. Begien aurrean genuen errepide mortu eta iluna ez zela sekula amaituko pentsatu nuen. Pentsatu nuen Ayacucho edo Tegucigalparaino eramango nuela neska gajo hura, negarrez bide osoan koitadua, Atlantikoa itsasoko uraren azpitik zeharkatuta. Neskaren negarrak nire aspaldiko negar egin nahi eta negar egin ezinaren zama arintzen zidala sentitu nuen. Ez nintzen orduan ohartu horretaz; orain pentsatzen dut hori, une hura gogora ekartzean.

–Batzuetan lagungarria izaten da ezezagun batekin hitz egitea –esan nion kilometro batzuk aurrerago, Elgoibartik nahiko gertu baina Tegucigalpatik oso urrun artean, haren negarra azkenetan zela sumatu nuenean–. Entzule ona naiz. Nahi duzu nirekin zerbait hartu Elgoibarren?

–Bueno –erantzun zidan, begiratu gabe, luze iruditu zitzaidan isilune baten ondotik–. Nik ere ez daukat etxera joateko gogo handirik.

Itxaropen handi bat piztu zidan barruan hori entzuteak. Infinitua, ilun eta zehazgabe, begien aurrean, aspaldiko partez.

–Elgoibarkoa zara? –galdetu nion, negarraldiaren ondoren pixka bat hitz egitea lagungarri izango zitzaiolakoan.

–Ez, ez naiz Elgoibarren bizi.

–Berdin zait Bilbora bazoaz ere, edo nahi duzun tokira, eramango zaitut, benetan. Ez daukat presarik.

–Elgoibarren hartuko dugu pote hori.

–Zuk nahi duzuna.

Ezkerreko eskua pausatu zuen, samurtasunez, nire eskuineko izterrean.

Aukera eman zidan aurreneko bide bazterrean autoa gelditu, eta musu bero batean lo0tu ginen.

Juan Luis Zabala
Idazlea

Diligentzia, auto eta beste



Jakin nahi nuke noiz erabili nuen lehenengoz *auto* hitza; zenbatgarren hitza izan nuen zuzenbideko hiztegian? Egingo nuke, hala ere, ez nuela lotzen hiztegiak dioen «***Arrazoitutako ebazpen judiziala, besteak beste gai hauek erabakitzen dituena: probidentzien aurkako errekurtsoak, intzidenteak, prozesuaren ukanbeharrak, prozeduraren deuseztasuna, etab.***» horrekin. Seguruenik, kutsadura zabaltzen duen eta lau gurpil duen ibilgailuarekin lotuko nuen.

Hori baino lehen ikasiko nuen, akaso, *diligencia* hitza ere. Eta, orduan bai, zinean hainbeste aldiz ikusitako aspaldiko garai bateko *Far west*-en toki batetik bestera eramateko erabiltzen zen garraioarekin lotuko nuen. Ez zen urruti izango *providencia* ere, nahiz eta orduan mundu honetako objektutik zerurako bidean jarri neure burua Jainko zerutarraren bila.

Konturatu nintzen arte, ondo kostata, hitz horiek beste esanahi bat hartzen zutela nire lan esparruan. Oso gerora ikasiko nuen *auto*, *eginbide* eta *probidentzia* hitzak erabiltzen, gaztelaniaz hasieran eta gero euskaraz; baina irudi garbia txikitan ikasi nuenekoa izango zen.

Kontuak kontu, hitz abstraktu horiek irudi bizidunekin lotzen ikasten hasi nintzen. Esaterako, diligentzia eginbidearekin lotu nuen, azken batean, diligentziek bide bat ibili behar dute beren eginkizuna betetzeko. Autoek, bestalde, motorra behar dute martxan jartzeko, eta autoa guztiz garrantzitsua da auzi baten prozesuan. Handik aurrera bideratua neukan nire hiztegitxoa, eta hala hasi nintzen erabiltzen *antolaketarako eginbidea*, edo *autoa betearaztea* edo *probidentzia proposamena* egitea.

Gaur ere, halako irudiak ekartzen saiatzen naiz burura, eta, irudi horien bitartez, neureagoak egiten. Esango duzu, agian, sukarrak hartuta nagoela, eta adarra jotzen ari naizela. Baina ez da hala: hitzak sentitu egin behar dira, geureak egin behar ditugu. Batzuk maitagarriagoak egingo zaizkigu; beste batzuk, ordea, gorrotagarriagoak. Baina hitz bakoitzak espiritu txikia du bere baitan, eta, gainera, hainbatek eta hainbatek izerdi galantak bota dituzte horietako batzuk asmatzen eta beste batzuk gure hizkuntzara eta lan esparrura egokitzen. Alfer-alferrik usteltzen utziko ditugu hor? Halako jarrera ez da nire ustez egokiena, hausnar egin dezagun pixka batean gai honetaz. Bila bagabiltza aurkituko dugu bidea, eta burua erabiliz burubidea.

Eta hausnartzen jarrita burura datorkidan lehenengoa da gure esparruan oso zabalduta dagoen axioma: *Hizkera juridikoa oso zaila da, eta euskara juridikoa zer esanik ez*.

Nik uste euskara juridikoa zaila baino gehiago ezezagun eta arrotz egiten zaigula, ezagun eta geure ez egiteko aldameneko bi erdarak ditugulako erreferente. Irudi bat jartzearren, erdara dugula autobidea eta euskara bidexka edo, nahiago baduzue, erdaraz jantzita erosoago eta dotoreago sentitzen garela euskaraz jantzita baino.

Ez, buruan hobeto sartzeko jakin beharrekoa da, besteak beste, noiz, non eta nola erabiltzen den, baina ezin da horretan geratu, buruan ondo gorde nahi bada, erabili, erabili eta erabili egin beharko da, erdararen morrontzan erori gabe. Eta hitzarekin jolastu? Zergatik ez? Eta istorioak kontatu? Zergatik ez? Eta lotura arraroak egin? Zergatik ez?

Hona hemen, esaterako, ipuin bat kontatu, auzia instruitu edo erabakia emateko hiru izenburu: *Ebasketak ebazpenari zeta lapurtu eta esez trukatu zionekoa* (euskara juridikoa ikasten hasteko moduko ipuina); edo *Inputatu gisa ebasketari deklarazioa hartzea, ebazpenari zeta indarra erabiliz ebasketa-delitua egiteagatik eta gainerakoei iruzur edo maula egiteagatik* (egokiagoa euskara juridikoa lantzen jarraitzeko, agian); edo, bestela, epai moduan *Ebazpenak emandako epai irmoa, ebaspenarekin zebilena atxilotzekoa* (lexiko juridikoan sakontzeko, apika).

Hori bi hitz lotuta egin daitekeen jokoa da, garbi geratuta *ebazpena* erabakiaren antzekoa dela, eta *ebasketa*, berriz, lapurretaren anaia txikia.

Baina ebazpenarekin beste lotura bat egin liteke, Biblia lagun: *Eba(k)-ze-pena* (hor ere ergatibo suge horrek izorratu egin behar!) *hartu zuen Jainkoa haserretu zitzaionean*. Eta gizakiaren sorrera etorrita sermoi honi amaiera eman nahi nioke, garaia da eta.

Horiek horrela, txikitan edo gaztetan bizi izandako egoerekin loturak eginez, istorioak kontatuz, pelikulen izenburuak jarriz, deklarazio bitxiak hartuz, eta burua hornitzeko beste hainbat trikimailuren bitartez, euskarak aldamenean dituen makuluak kenduz joango gara, pixkanaka-pixkanaka; pentsamenduak eta ideiak buruan euskaraz harilkatu ondoren, mingaina dantzatuz eta ordenagailuen teklak astinduz mezuak elkarri euskaraz txukun-txukun helarazteko.

Xabier Yurramendi
Euskara teknikaria

Zer egin klima aldaketari aurre egiteko?

Azken urteotan klima aldaketaren gaia bolo-bolo ibili da eta gai eztabaidagarri eta korapilatsu honi buruzko hainbat teoria zabaldu dira: noiz helduko den, nola eragingo digun... Esanak esan, gaur egungo ikerketek baieztatzen dute klima aldaketa mehatxua izatetik errealitate izatera igaro dela. Parisen bildutako Nazio Batuetako aditu talde batek adierazi berri duenez, aldaketaren eraginak uste baino lehen pairatuko ditugu eta hasieran uste baino larriagoak izango dira. Kontua ez da klima noiz eta nola aldatuko den, baizik eta zer egin dezakegun berori saihestu edo moteltzeko: energia aurreztu, kontsumo arduratsuaz baliatu, CO_2 isuriak murriztu, teknologia ekologikoen garapena bultzatu... Edo, besterik gabe, gure gizarte eredua bera aldatu behar izango dugu? Bost aditurekin hitz egin dugu gai honen inguruan, euren iritzi eta aurreikuspenak zeintzuk diren jakiteko.



Jaime Sureda

Iberdrolako Klima Aldaketa Ataleko burua

Gaur egun inork ez du ezbaian jartzen hainbestetan entzundako klima aldaketa heldu dela. Stern txostenak eta berriki argitaratutako Nazio Batuen IPCC (Intergovernmental Panel on Climate Change) taldearen ikerketek ez dute zalantza izpirik uzten. Lurreko klima etengabe ari da aldatzen, eta ikuspegi zientifikotik planetako batez besteko tenperatura 2 gradu igoko denez gero, horrek ziur aski geure gain hartu ahal izango ditugun eragin eta egokitzapen kosteak ekarriko dizkigu, nahiz eta kostea handia izan. Hala ere, egungo joera ikusita, tenperatura 5 gradu igoko dela ematen du; etorkizun horri aurre egin behar izango bagenio, ondorioak aldez aurretik ezin izango lirateke aurreikusi, baina ziurrenik hondamena litzateke.

Sektore elektrikoak arazo hau konpontzeko betebehar oso garrantzitsua du eta Iberdrola horren jakitun da. Munduko konpainia elektrikoak aintzat hartuta, guk daukagun produkzio parkea izango da gutxien kutsatzen dutenetakoa. Eta, gainera, konpainiaren Plan Estrategikoak ingurumena gehien errespetatzen duten teknologien alde egiten du: gas naturalaren ziklo konbinatuak eta energia berriztagarriak. Ekintza politikoa beharrezkoa da era honetako arazo bati aurre egiteko, eta gure enpresa hasieratik arazoa konpontzearen alde sortu diren ekimen guztietara bildu da, Kiotoko Protokolotik hasi eta Europako Isuri Eskubideen Merkataritza Zuzentarauraino.

Etorkizunari begira, funtsezkoa izango da herrialde garatuetako energia kontsumoaren moldeak aldatzea. Ezin zaio gaur egungo mailari eutsi, produkzio, garraio eta kontsumo prozesuen eraginkortasunean esku hartu gabe. Bestalde, berrikuntza teknologikoa funtsezkoa da, eta, era berean, erabakigarria izango da erregai fosilen hain menpeko ez diren energien aldeko apustua. Gehiago garatu behar litzateke Hidrogenoa bezalako beste sektore energetikoetan oinarritutako ekonomia.

Adolfo Morais

Meteorologia eta Klimatologia zuzendaria. Eusko Jaurlaritza



Objektiboki klima aldaketa egon badagoela baieztatzeko datuak komunitate zientifikoak berak ematen dizkigu. IPCCk lantzen dituen dokumentuak eta datuak erreferentziazko informazioa dira. Talde honetan mundu osoko eta sail desberdinetako zientifikoek egiten dute lan, munduko datu meteorologiko eta klimatikoak eta horien garapena aztertuz. Euskalmeten, Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzapean, gure erkidegoko zaintza eta iragarpena egiten dugu, eta gure sare meteorologikoak ematen dizkigun datu anitz hartzen ditugu aintzat, Euskadin ere aldaketak ari direla gertatzen berresteko.

IPCCren datuen arabera –ondorioak orokorrak direla kontuan izanik–, gaur egun oso zaila da esatea zeintzuk izango diren Euskal Herrian jasango ditugun eraginak. Dena den, aurreikus ditzakegun ondorioetariko batzuk honaxekoak dira: batez besteko tenperatura igotzea, itsasoaren batez besteko tenperaturak ere gora egitea, prezipitazioak trinkotzea eta muturreko fenomeno meteorologikoak ugaritzea. Tenperaturak eguneroko bizitzari eragiten dio: gizakien bizimoduari, aisialdiari, lanari ere... Baina gizakioi ez ezik, bestelako esparru garrantzitsuei ere eragingo die; esate baterako, arrantza eta nekazaritzaren kasuan, aurreikuspenak betetzen badira, bi sektore horietan ere aldaketak izango ditugu, eguratsaren zein itsasoaren batez besteko tenperatura igoerak biodibertsitateari bete-betean eragingo baitio.



Xabier Caño
Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren koordinatzailea. Eusko Jaurlaritza

Nazioarteko komunitate zientifikoak aspaldi ohartarazi zuen klima aldaketa izan badela. Fenomeno hau ez da zientzia fikzioa, errealitate gordina baizik. Gaur egun, kontua ez da klima aldaketa dagoen edo ez dagoen, baizik eta nola egingo diogun aurre, ahalik azkarren eta modurik eraginkorrenean. Jaurlaritzaren ingurumen agendan, lehentasun osoa eman zaio kontu honi. Nazio Batuek 2.500 zientifikok baino gehiagok osatutako taldea jarri dute abian: IPCC; talde horrek Parisen aurreratu berri duenez, klima aldaketaren eraginak uste baino larriagoak izango dira eta pentsatu baino askoz lehenago pairatuko ditugu. Beraz, ez dugu klima aldaketaren zain egon behar, dagoeneko hementxe baitugu. Eta gaurtik ekiten ez badiogu, agian bihar damutuko zaigu, berandu izan daitekeelako.

Klima aldaketari aurre egiteko ardura eta erantzukizuna denoi dagokigu. Erakundeok zentzuzko kudeaketa egiteko ardura eta betebeharra daukagu. Enpresek, berriz, ekoizpen iraunkorra barneratu behar dute. Eta herritarrok, ordea, arduraz kontsumitu behar dugu. Hiru hankok, hirurok ere, ezinbestekoak dira, garapen iraunkorraren bidea jorratzeko. Legealdiaren hasieran, Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa eratu genuen, Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana garatzeko asmotan. Egitasmo honek, batetik, berotegi efektua eragiten duten gasen isuriak murriztu nahi ditu, eta, bestetik, klima aldaketaren ondorioetara egokitu; horiexek dira helbururik behinenak. Halaber, ingurumenari dagokionez, datozen urteotarako lehentasunak hauexek dira: klima aldaketaren aurka egin, biodibertsitatea eta natura babestu, airearen kalitatea hobetu eta ekoizpen zein kontsumo iraunkorra bultzatu. Klima aldaketa eta ekoizpen nahiz kontsumo arduratsua txanpon beraren bi aldeak baino ez baitira: aurkia eta ifrentzua.



Txaber Lezamiz
Energia zuzendaria. Eusko Jaurlaritza

Gizarte garatuenetan gailentzen den eta garatzeko bidean dauden herrialdeek eredutzat hartzen duten gizarte ereduak berekin dakar natura baliabideak etengabe kontsumitzea. Baliabide horiek mugatuak dira, eta ondorioz, ahalik eta gutxien erabili behar dira. Ez bakarrik agortu eta garestitu egingo direla pentsatzen dugulako, baizik eta gure inguruan gaitzak sortzen dituztelako: arnasten dugun airearen kalitatean, berotegi efektuan eta ekosistemetan, hain zuzen. Honen guztiaren aurretik, ez zegoen natura baliabideen mugaren kontzientziarik, eta, azken urteetan norabidea aldatzeko aurrerapenak egin diren arren, prozesua oso motela da. Halaber, ez dago esaterik teknologia etorkizunean gure gizarte eta kontsumo ereduari eusteko gai izango denik; horregatik, gizarte aldaketaren alde ere egin behar dugu lan. Euskal Energia Estrategiak lehentasuna ematen dio energia aurrezteari eta baliabide berriztagarriak erabiltzeari, eta horretarako energia kontsumoari iraunkortasun irizpideak aplikatu beharko zaizkio.

Energia kontsumoaren %47 industria sektorearena izan zen 2005ean, baina energia aurrezteak eta prozesu aldaketek berotegi efektuko gas isuriak murriztea ekarri dute. Bestalde, industria sektorea izan da 1990eko datuen aldean bere isuriak jaistea lortu duen bakarra. Urte hori da Kiotoko Protokoloaren arabera erreferentzia gisa hartzen dena. Horrela, EAEko isurien guztizkoa 1990etik 2005era bitartean %24 hazi zen arren, industria sektorean %28 murriztu zen. Isurien hazkundearen %55 inguru garraioari dagokio. Europako Isuri Eskubideen Merkataritza Zuzentarauaren barruan 4,4 milioi tona CO_2ko isurietarako eskubideak esleitu zitzaizkien gure industriei. Zuzentarau horren aplikazioaren lehenengo urtean (2005) 0,4 tona inguruko soberakina izan zuten industriek. Bigarren fasean, 2008-2012, esleituko zaizkien isurien kopurua txikiagoa izango da eta, ondorioz, enpresek ahaleginak egiten jarraitu beharko dute euren isuriak energia eraginkortasunaren eta prozesu aldaketen bitartez murrizteko.



Iñaki Barcena
Ekologistak Martxan. EHUko Zientzia Politikako irakaslea

Klima oso gai konplexua eta eskuragaitza da, auzi honetan faktore eta eragile anitz biltzen baitira. Nazio Batuen eskariz, duela pare bat hamarkadatik hona IPCC taldea ari da ikerketa sendoak egiten eta, zoritxarrez, baieztatzen ari dira ahots ekologista kritikoek esandakoa. Erronka politikoa da. Gobernariek hartu behar dituzte konpromisoak, garraio eta energia programa berriak martxan jarriz, eta nola ez, herritarrak politika horietan inplikatuz. Elite ekonomikoek erabakitzen badute, adibidez, petrolioaren edo automobilen multinazionalek esaten badute zer egin daitekeen eta zer ez, ez dago etorkizunik. Hori ari da gertatzen Europako Batasunean CO_2ko zergen gaian: enpresarien presioak izugarri handiak eta ikusezinak dira, eta atzera botatzen dituzte ingurumena defendatzeko prestatutako legegintzako ekimen berriak. Nicholas Sternek dio, iaz Tony Blairrentzat egindako txostenean, klima aldaketak merkatuaren porrota adierazten duela. Kapitalismoak hazkunde ekonomikoa, hots, aberastasuna pilatzea du helburu ia bakartzat eta hori bateraezina da ingurumena eta ekosistemak zaintzeko zereginarekin; gainera, ez du kontuan hartzen nola banatzen diren hazkundea edo klima aldaketaren onurak eta kalteak.

Begoña Miñaur
Kazetaria

Web 2.0, Sareko zerbitzuen iraultza

Sarea letra larriz idatzi ohi da Internet dela adierazi ahal izateko. Eta sareen Sarea lehen bertsioan baino ez dugu ezagutu, harik eta XXI. mendean sartu garen arte. Orduantxe, oraintsu, Tim O'Relly linuxzaleak "web services" edo web zerbitzuen ahalmenari erreparatu zion eta joera baten berri eman zigun[1]. Web 2.0 hasita zegoen 2005. urtean. Alfa bertsiotik beta bertsio iraunkorrera pasatuak ginen. Irakurtzeko ez ezik, idazteko sare ere bilakatu da geroztik Internet. Telebistaren kutxa leloaren antza edukitzetik benetako tresna elkarreraginezkoa izatera igaro da. Aro berri honetan aplikazioak barik, zerbitzuak eta edukiak dira garrantzitsuenak. Web zerbitzuen arrakasta hain handia izan da, ezen software konpainia askok ateak itxi edo bihurketa bidean barna abiatu behar izan baitute beren aplikazioen kodeak irekiz. Internet, alor analogikotik iraulitako edozer metatzeko gordailutzat baino ez zuten hartzen batzuek, HTML soil eta ahulaz egiten zuten lan, estandarizazioan hainbeste kalte sortu duten programa informatiko pribatiboak erabiltzen zituzten. Eta bat-batean ikusmira berria zabaldu da gure begien aurrean: sareen Sarea gordinik, biluzik eta zuzenean lan egiteko tresna bezala.

Aurrekoa ez da ulertzen, segur aski, adibide batzuk erakutsi ezik. Une batez, irudika dezagun administrariak zerrenda bat egin behar duela sailkide batzuen gastuen berri emateko eta informazio hori partekatu behar duela hiru arduradunekin bukaerako bertsioa fintzearren. Orain arte, ohikoa zen lan hori egiteko kalkulu orri pribatibo batean idaztea (bakarrean ez esatearren, Excelen hain zuzen ere) eta kalkuluak ateratzea, geroago fitxategi hori bati eta besteari emateko posta elektronikoz edo CD batean grabaturik. Baina, ez al da eraginkorragoa dokumentu hori Interneten utzi eta berrikusi egin behar duten hiruzpalau pertsonek aldaketak zuzenean egitea? Google dokumentu bihurtuta esaterako, fitxategi hori oso arin berrikus daiteke eta, bestela ordu edo egunetan egin ohi zena, minutu gutxitan egin.

Baina orain, web zerbitzuetara joko dute hainbatek, aplikazioen unibertsaltasuna gauzatu ahal izateko, edonon eta edonoiz kontsultatu ahal izateko, hardwareari erreparatu gabe. Sareko zerbitzuen gizartearen ernamuina da Web 2.0 deritzona, baita Ajax, Python eta Ruby mintzairak ere.

Dena den, web zerbitzuek errezeloa sortzen omen dute: segurtasuna. Oker daude fitxategiak norberaren makinan seguruago daudela pentsatzen dutenak. Gehienetan ez da horrela, jende gutxik erabiltzen baitu RAID teknologia etengabeko kopiak egiteko. Konfiantza sortzea baino ez dago, web zerbitzuen liluraz profitatzeko. Baina, web zerbitzu batzuek kode itxiak ere baliatuko dituzte beren sistemetan, nahiz eta Web 2.0koak direla esan. Herritarrek konfiantza txikia ukan dezakete web zerbitzu batzuetan, baldin eta APIak zabalak ez badira, zerbitzuok ematen dituzten enpresek kobratzeko ohitura badute, informazioa ezkutatzeko joera badute edo saialdi monopolistikoak egiteko trebezia erakutsi badute. Administrazioek ezer gutxi lor dezakete irekiak ez diren web zerbitzu horietatik. Halarik ere, desberdina da, teknologia ireki hori erabiltzen bada, betiere APIa irekita izanik. Hortxe dago gakoa. Eta Googlek jakin badaki hori. Horregatik ez litzateke burutsua izango teknologia hori ez baliatzea, Web 2.0ko baldintzak betetzen baditu.

Teknologiaz jantzita eta hornituta dauden enpresak, Sareko zerbitzuak ematen dituztenak –eta horretan Google da nagusi– abangoardia dira eta etorkizuna nolakoa izango den aditzera ematen digute. EPIC 2015[2] dokumentalean aurreikusten dutenez, geroko zerbitzuak sare zerbitzuak izango dira, orokorrak edo unibertsalak.

Delako Web 2.0 hori adierazteko irudiak egin dira etiketak erabiliz (folksonomia) eta agian onenetarikoa Markus Angermeier-ek egindakoa da, lerro hauen ondoan agertzen dena. Kontzeptu mapa horretan Web 2.0ren inguruan dauden terminoak eta nozioak ageri dira, baita mugimendu horren adibide garbien izenak ere, eta bakoitzak kokapen erlazionatua du. Hor ageri dira: Amazon, Flickr, Technorati, Google Maps... Web 2.0 horren aitzindariak eta gainerako zerbitzu arrakastatsuak.



Web 2.0ren kontzeptu mapa

[1] http://www.oreillynet.com/pub/a/oreilly/tim/news/2005/09/30/what-is-web-20.html

[2] http://www.unabvirtual.edu.co/epic/



Zamzar, on lineko bihurgailua

Ipin dezagun beste adibide bat Web 2.0 deritzonean lan egiteko moldeaz jabetzeko. Demagun, administrazioko arduradun batek hogei orrialdeko bost txosten dituela, beraren ardurapean dauden bost langilek egindakoak, eta barneko kontzeptuak konparatu nahi dituela esaldi berdinik dagoenentz ikusteko. RTF, ODT edo DOC formatuan baditu, nekez erreparatuko die berdintasunei. Alabaina, Sarean baditu –Copyscape web zerbitzuaren bidez[3]–, berehala ikus dezake non dauden berdintasunak. Beste adibide bat ipintzearren, administrazioko langile gutxik ezagutzen dute Ajax mintzairaren ahalmena posta elektronikoko mezuak idazteko orduan. Kudeaketa azkarrak denbora asko aurrezten du eta bilaketaren funtsezkotasuna agerian uzten. Gmail bezalako posta zerbitzuek beste aro batera garamatzate. Bestalde, enpresa teknologiko handi askotan wikiak eta blogak erabiltzen dituzte barneko jakintza kudeatzeko eta ikerketak egiteko. Blog bihurtzen ari dira egun antzinako web guneak, Interneteko erakusleiho sinpleak zirenak, lan egiteko, editatzeko eta komunikatzeko tresna bihurtu baitira. Skype edo Gizmo erabiltzen ditugu telefono tradizionalaren ordez; blogak, HTML zaharraz egindako web guneen ordez; wikiak, antzinako CMS korapilatsuen ordez; web zerbitzuen bidez erabiltzen den softwarea, makinan bertan kargatzen denaren ordez... Lehen, makinan bertan metatzen genituen argazkiak eta orain, sarri, Zooomr edo Flickr bezalako zerbitzuak erabiltzen dira.

Gmail, Blogger, Flickr eta Del.icio.us erabiltzen hasiz gero, uler genezake zer diren web zerbitzuak. Baina, nik jakin badakit jende askok ez duela horrelako aplikazioetan izena emateko astirik eta ulertzeko nola erabiltzen diren; hori dela eta, beti aholkatzen dut Zamzar[4] probatzea, Web 2.0 horren esangura ulertzeko. Zamzar-ek aukera ematen digu fitxategiak formatu batetik bestera pasatzeko. Egizue proba hori edozein PDF ohiko testuko formatura pasatuz; norberaren makinan ezer abiatu gabe, orain arte software bezala ulertu duguna erabiltzeke... dena magikoa eta internautaren postontzi elektronikoan luzatu gabe. Zertarako xahutu dirua norberaren makinan erabiltzen diren programak erosiz?

Bestalde, Web 2.0 mugimenduak aukera berriak eskaini dizkigu. Orain munduko biblioteketan dauden liburuak web zerbitzu bitartez etxetik bertatik kontsultatu eta datutegi eskergak geure esku eduki ditzakegu bilatzaile ahaltsuen bidez. Aspaldion, mugimendu azkarrak ikusi ditugu Europan, hala nola, Googlek Madrilgo Complutense unibertsitatearekin liburuak digitalizatzeko egindako ituna. Google Books aplikazioari begiratu bat baino ez zaio eman behar bilatze ahaltsuek zein erraz kudea ditzaketen datutegiak, liburuak… konturatzeko.

Hona hemen Web 2.0ko zenbait aplikazio eta parekoak Web 1.0 aroan:

- Zamzar.com edo PDFonline.com vs bihurgailu programa pribatiboak.
- Pixer.us irudiak aldatzeko eta editatzeko edo on lineko Gimp programa vs Photoshop edo antzeko programa pribatiboak.
- Google Docs & Spreadsheets vs Microsoft Word edo Open Office suita.
- YouTube edo Stickham bideoak grabatzeko eta editatzeko vs norberaren makinan korritzen duten programak.
- Wikipedia vs Entziklopedia Britainiarra.
- Bibliotekako liburuak on line eskuragarri, bilaketa sistema ona edukita (Google Books) vs Euskadiko Biblioteka Sarean dauden erreferentziak (liburuenak).
- GMail bezalako Ajax posta zerbitzu integratu, asinkrono eta ahaltsuak vs posta elektroniko sistema zahar geldoak.

Ingurune honetan, berandu baino lehen, web zerbitzuetara pasatuko dira erabiltzaileak. Abantailak asko dira. HTML mintzairatik XHTML eta XMLera pasatzen ari garen bezala, Web 2.0k erroak bota ditu dagoeneko. Batez ere, Google, Yahoo, blog eta wikiek ekarri dute web zerbitzuen arrakasta. Ia 60 milioi blog dauden unetik beretik, orain web masterren erronka Web 2.0 horretan egotea ala ez egotea da. Zaharra edo berria. Interneterako ekoitzi edo jendearen PCetarako. Horra hor batzuen ezbaia oraindik ere.

P I S T A K

Balioztatzeko erreminta (Web 2.0ren 52 ezaugarri ageri dira):
http://web2.0validator.com/

Wikipediako definizioa:
http://en.wikipedia.org/wiki/Web_2

Techcrunch (informaturik egoteko):
http://www.techcrunch.com

Direktorioa:
http://www.go2web20.net/

Oracle-ren Web 2.0ren Fusion Applications izenekoak:
http://www.oracle.com/products/middleware/webcenter.html

Gorka Jakobe Palazio
EHUko irakaslea


[3] http://www.copyscape.com
[4] http://www.zamzar.com



Frases y expresiones latinas de uso actual

Segura, Santiago
Deustuko Unibertsitatea
Bilbao, 2006
203 or.


Zuzenbide hizkeran behin eta birritan erabiltzen da latina, baina ez beti zuzen. Bere idazkietan edo berbaldian latinezko aipamenak sartu nahi dituenak, lan honetan aurkituko du horiek egoki erabiltzeko bidea: latinez nola esan behar den, gaztelaniaz zer esan nahi duen, nork esan zuen, zein lanetan eta zein pasartetan. Batez ere, Zuzenbidean gaur egun gehien erabiltzen diren aforismoak, atsotitzak, zuzenbidearen printzipioak, adierazpenak eta esaerak biltzen saiatu da egilea. Horiek guztiak hobeto ulertzeari begira, Erromako erakunde juridikoei buruzko informazioa aurkituko duzu lanaren bukaeran.



Escucha eficaz

Info-line bilduma 113
Batell, Chris
ASTD-EPISE
Barcelona, 2007
18 or.


Elkarrizketa batean, zeinek hartzen du komunikazioaren ardurarik handiena, hitz egiten duenak ala entzuten duenak? Ikastaro asko eta asko egiten dira jendearen aurrean hitz egiten ikasteko, eta ez zaio batere garrantzirik ematen entzuteari, denok uste baitugu oso ondo dakigula "entzuten". Baina *entzutea* eta *aditzea* ez dira gauza bera. Horretarako, zerbait gehiago behar da: entzutea bai, baina, aldi berean, ikustea, ulertzea eta komunikazioa interpretatzea. Eta ikas daiteke. Eskuliburu labur honek horixe eskaintzen digu: aditzak ikasteko zenbait estrategia eta orientabide, hemezortzi orritan bilduta. Zuk zeuk zer egiten duzu, entzun ala aditu?



Formador de teleformadores

Claves para diseñar, elaborar y aplicar un programa E-learning con éxito
Souto, Alejandra
Ideaspropias
Vigo, 2006
126 or.


Prestakuntza ordenagailu bidez eskaintzeko eta jasotzeko bide berriak zabaldu ziren aspaldi; eta, gaur egun, prestakuntza lanpostuan edo etxean bertan jasotzeko aukerak ugaritu egin dira. Baina nola diseinatu behar dugu horrelako ikastaro bat? Nola kudeatu? Zeintzuk dira irakaslearen eginkizunak? Liburu interesgarria ordenagailu bidezko ikastaroen nondik norakoen berri izan nahi duen edonorentzat.



Euskara jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza

Xamar
Pamiela
Iruña, 2006
274 or.

Euskal Herriaren historia hiztunen bidez kontatu; horixe egin du *Xamarrek* azken liburu honetan. Galdera askori erantzuten dio modu erakargarrian: nola bizi izan dute herritarrek euskara? Zein izan da bilakaera? Nola ikusi dugu geure burua? Eta, nolako harremanak izan ditugu gurera etorri diren beste herriekin? Gertakizun historikoak, garaian garaiko idazleek kontatutakoak, bisitariek gutaz esandakoak irakurtzeko aukera izango duzu liburu interesgarri honetan. Bidaia egiteko prest?



Dendaketan. Dendariek euskara ikasteko lehen urratsak

Egaña, Juxto (Proiektuaren arduraduna)
HABE
Donostia, 2006
227 or.

Ikasmaterial hau euren lanean euskaraz aritu nahi duten dendari eta merkatariei laguntzeko egina da. Egokia da taldean ikasteko, baina bakarka jarduteko ariketez osatua dago. Ikasmaterialak barne hartzen ditu dendetan sarritan jarri behar izaten diren hainbat mezu, errotulu nahiz ohar idazteko ereduak ere.

Pio Baroja idazlea eta Santa Kruz apaiza





Pio Barojaren lan ezagunenak nobelak badira, genero horretatik aparte ere asko idatzi zuen. Esate baterako, gerra kronika ugari utzi zituen idatzita: munduko bi gerrateak, Espainiako Gerra Zibila… aintzat hartu eta orri asko bete zituen, kronika gisa hartuta. Nahiko gazte hasi zen gerra kronistaren lanak egiten, hogeita hamar bat urte zituenean, Madrileko *El Globo* egunkariak Afrikara bidali zuenean, 1902. urtean, Marokoko gerraren berri eman zezan. Horrela, Pio Baroja Tanger hirira joan zen eta handik bidali zituen bere eguneroko kronikak.

Badu, ordea, gerra bati buruz idatzitakoa berezi samarra dena. Alde batetik, gerra hori aspaldi samar amaitua zelako eta, beraz, Barojak zuzenetik ezagutu gabe egin behar izan zituelako kronika horiek. Eta bestetik, egindako lan hori ez zitzaiolako batere gustatu gerra hartan protagonismo nagusia izan zuen pertsonaiari, artean (Barojak testu bilduma publikatu zuenean) bizirik baitzegoen. Pertsonaia garrantzizko hori Santa Kruz apaiza da eta aipaturiko gerra hori, jakina, Hirugarren Karlistada. Eta Barojak ezin zuen ezagutu zuzenetik gerra karlista hori hain juxtu amaitzear zegoelako bera jaio zen urtean. Jakina denez, Pio Baroja Donostian jaio zen 1872. urtean eta esan daiteke Hirugarren eta azken Karlistada hurrengo urtean, hots, 1873an eman zutela amaitutzat. Orduan, Barojak urtebete besterik ez zeukan; ezin, beraz, gertutik kontatu gertatzen ari zena. Eta halaz ere, ia berrogeita hamar bat urte geroago, Pio Baroja ausartu egin zen Santa Kruz apaizaren kontra liburu gogor bat idaztera, garai hartan gertatu zirenak gertutik ezagutzeko aukerarik izan gabe eta, gainera, apaiza artean bizirik zegoela (nahiz eta oso urruti bizi izan, Hego Amerikako Kolonbian).


Pio Barojak idatzitako liburua *El cura Santa Cruz y su partida* deitzen da eta 1918an kaleratu zen. Apaiz karlistaren aldekoak berehalaxe atera ziren esanez libelo naz-kagarri bat zela testu hura, goitik beheraino gezurrez eta gehiegikeriaz josia zegoena, kontradikzio eta faltsukeriez betea. Santa Kruz apaizak, hemengo dena alde batera utzi eta Ameriketarako bidea aukeratu zuenean misiolari izateko, esana zien bere lagun eta jarraitzaileei inoiz ez erantzuteko ezer, bere alde ez ateratzeko, etsaiek kontra asmazio eta gezurrik handien eta borobilenak botatzen bazituzten ere. Halaz ere, badakigu Santa Kruz apaizak izandako erreakzioa Pio Barojaren liburua irakurri zuenean. Bai baitakigu irakurri egin zuela eta hantxe bertan, Ameriketan, testu luze bat idatzi zuela puntuz puntu, hitzez hitz errefusatuz Pio Barojak bere kontra esandako guztia. *Réplica contra Pío Baroja por Manuel Santa Cruz* da apaizak idatzitako testuaren izenburua.

Pio Barojak, liburuaren halako pasarte batean, dio Santa Kruz apaizaren soldadu jarraitzaileetatik batzuk gizon zintzoak zirela, baina beste asko "bidelapur hutsak". Pasarte hau irakurtzean biziki haserretu eta sutu zen apaiza: "Nire mutiletatik batzuk bidelapurrak direla? Hori iraina da –idatzi zuen Santa Kruzek–. Munduko onenak ziren nire soldaduak. Hainbesteraino non inoiz ez nituen zigortu behar izan, ez badira behin mozkortu zena eta neskamearekin gaizki portatu zen beste hura. Beste inoiz ez nuen nik inor zigortu, horretarako motiborik eman ez zidatelako".

Pio Barojaren familiak ezagutzen zuen Egozkue *El Jabonero* deitzen zen soldadua, Santa Kruz apaizarekin ibilitakoa. Pio Barojak, apaizaren krudelkeria erakusteko, esaten du Egozkue azkarra eta ausarta zela, beti aurrean ibiltzen zena, eta jarraitzaileak zituela; horregatik, apaizak fusilatu egin omen zuen. Honekin ere izugarri haserretzen da Santa Kruz, gezurti hutsa dela esaten dio idazleari eta berdin-berdin zaiola gauza bat edo beste esan, nahiz eta kontraesanean jausi. Esplikatzen dio segidan zergatik fusilarazi zuen Egozkue, traizio egiteagatik, eta nola honek azkenean, hil baino lehen, bere errua onartu zuen eta barkamena eskatu zion.

Joxemari Iturralde
Idazlea

Hitz gurutzatuak



EZKER-ESKUIN

1. Asiako estatu erraldoia. **2.** Bi gehi bi. Ez ar. **3.** Errekorra. Ardi, hitz elkarketan. **4.** Ez eme. Dokumentua. **5.** Iodoaren ikur kimikoa. Itsas arrain mota. Fosforoaren ikur kimikoa. **6.** Gipuzkoako herria. Bigarren eta laugarren bokalak. **7.** Bizkaieraz, ile. Heldu. **8.** Baita. Garra. **9.** Barre xumea.

GOITIK BEHERA

1. Irakasle. **2.** Bizkaieraz, sobera. Hitz, solas, berba. **3.** Jatorria adierazten duen atzizkia. Azaldu. **4.** Lehortu, hezetasuna kendu. Erbioaren ikur kimikoa. **5.** Bokala. Gizon zahar. Roentgen. **6.** Neonaren ikur kimikoa. Kimatu. **7.** Donostiako auzoa. Istua, listua. **8.** Gaixo. Nafarroako urtegia. **9.** Botilaren ahoa estaltzeko pieza, kortxo nahiz plastikozkoa.

Letra zopa

U	T	X	I	L	A	R	R	A	I	A	H
R	A	I	E	A	Z	P	E	A	R	M	E
A	I	A	D	R	R	E	T	U	A	I	L
L	G	N	O	H	E	O	H	I	D	N	I
I	E	U	K	A	L	I	P	T	O	A	X
M	R	S	A	L	M	O	N	S	P	R	O
A	T	A	E	G	U	M	L	O	I	H	A
M	I	X	T	U	R	E	O	X	T	A	L
A	L	A	A	U	K	I	L	I	P	Z	I
K	T	U	I	P	E	N	E	X	I	N	A

LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan gure inguko 8 sendabelarren izenak. Izenok ezker-eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 944 159 512
- Argia: 943 371 545
- Berria: 943 304 030
- EIZIE: 943 277 111
- Euskal Herrian Euskaraz: 943 445 665
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 946 031 000
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 944 158 155
- HABE: 943 022 600
- Zubiarte Euskaltegia: 948 361 091
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945 017 600
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945 018 110
- Ikas eta Ari (IKA): 945 288 922-944
- IRALE: 945 274 400
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945 017 656. FAX: 945 017 603
- Kultura Saila: 945 019 464
- NAPIko Euskaltegia: 848 423 319-351
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848 423 349-351
- Udal Euskaltegiak: 944 406 217 943 028 100
- UZEI: 943 473 377

Soluzioak

Hitz gurutzatuak

Ezker-eskuin:
1. Txina. **2.** Lau. Eme. **3.** Marka. Art. **4.** Ar. Agiria. **5.** I. Atuna. P. **6.** Segura. Eo. **7.** Ule. Entsi. **8.** Ere. Sua. **9.** Irria.

Goitik behera:
1. Maisu. **2.** Lar. Ele. **3.** Tar. Ageri. **4.** Xukatu. Er. **5.** I. Agure. R. **6.** Ne. Inausi. **7.** Amara. Tua. **8.** Eri. Esa. **9.** Tapoi.

Letra zopa

Izpilikua, menda, kamamila, mihura, txilarra, asuna, ereinotza, eukaliptoa.